

# **Euskal-japoniar kidesuna misiolarietan: Sauveur Candau (1897-1955) eta japoniar pentsaeraren jabekuntza<sup>1</sup>**

**Afinidad vasco-japonesa en los misioneros: Sauveur Candau (1897-1955) y la adaptación al pensamiento japonés**

**Basque-Japanese Affinity among Missionaries:  
Sauveur Candau (1897-1955) and Japanese  
Thought's Adaptation**

Anduaga, Aitor  
Medikuntza eta Zientziaren Historiaren Euskal Museoa. Euskal  
Herriko Unibertsitatea  
IKERBASQUE: Zientziarako Euskal Fundazioa

Hagio, Sho  
Tokioko Atzerriko Ikasketen Unibertsitatea (Tokyo University of  
Foreign Studies)

BIBLID [1136-6834, eISSN 2386-5539 (2020), 44; 93-126] Jaso: 2020.08.03  
Onartu: 2020.10.23

---

*Artikulu honetan, Sauveur Candau (1897-1955) eta orduko beste euskal misiolarien egokitzapena Japoniako kulturara aztertzen da. Narratiba nazionalen orde, ikuspegi orohartzailera hartuko da, ebanjelioaren transmisioa moldatu zuten euskal-japoniar kulturarteko kidesasunei arreta jarriaz. Misiolariek nola ulertu zituzten kidesasun horiek eta euskara eta japonieran arteko antzekotasunak deskribatzen dira. Japoniar pentsaeraren jabekuntza islatzen duen Candauaren "metodo psikologikoak" kidesasunaren kontzientziazioetik egokitzapenera doan bilakaeraren gailurra da.*

*Giltza-hitzak: Euskal misiolaritza, Japonia, Egokitzapen kulturala, Kidesasun kulturala, Inkulturazioa, Sauveur Candau, Xabierko Frantzisko.*

---

1. Lan hau "Basque Catholic Missionaries' Influence on Japan's Modern Thought: S. Candau and Global/Local Debate" izeneko ikerketa proiektuaren lehen emaitza da (FY2019 JSPS Invitational Fellowships for Research in Japan), Japoniako Japan Society for the Promotion of Science (JSPS) erakundeak finantzatutakoa Aitor Anduagari ("Fellow" gisa) eta Sho Hagiori ("Host researcher" gisa).

*En este artículo se examina la adaptación de Sauveur Candau (1897-1955) y otros misioneros vascos coetáneos a la cultura japonesa. En lugar de las tradicionales narrativas nacionales, se adopta un enfoque globalizador, prestando atención a las afinidades vasco-niponas interculturales que modelaron la transmisión de la doctrina evangélica. Se describe el modo en que los misioneros interpretaron tanto dichas afinidades como los parecidos entre el euskara y el japonés. El llamado "método psicológico" de Candau, que refleja su apropiación de la forma de pensar japonesa, representa la evolución que va de la concienciación de las afinidades a la adaptación.*

*Palabras clave: Misionariado vasco. Japón. Adaptación cultural. Afinidad cultural. Inculturación. Sauveur Candau. Francisco Javier.*

*This article analyses the adaptation of Sauveur Candau (1897-1955) and other contemporary Basque missionaries to the Japanese culture. Instead of traditional national narratives, it adopts a global approach, paying attention to the Basque-Japanese intercultural affinities that shaped the transmission of evangelical doctrine. It shows how the Basque missionaries interpreted both these affinities and the similarities between the Basque and Japanese languages. Candau's so-called "psychological method" reflecting his appropriation of the Japanese way of thinking, represents the evolution from the awareness of cultural affinity to adaptation.*

*Keywords: Basque Missionary. Japan. Cultural Adaptation. Cultural Affinity. Inculturation. Sauveur Candau. Francis Xavier.*

## 1. SARRERA

Ebanjelizazioa, uste denez, jarduera berezia da, edota zehatzago esan, erronka —baita problema ere— kultura arteko topaketa ikuspuntu batetik, bederen. Misioari entzatzat, eta oro har gizakiari entzatzat, kultura batean sortutako mezu bat beste kultura bateko baloreetan hezitako herri batean adieraztea, erronka konplikatua da. Ebanjelizazioa ez baita, adituen iritziz, predikatuzko hizkuntzaren egokitzapen soila, ezta jantzi liturgiko eta apaingarrien moldaketa soila ere; edo ez hori bakarrik, baizik eta, batez ere, bertako gizartearen moduan sentitzea eta pentsatzea, jarrera honi ipintzen zaizkion erreparatuak gorabehera. Beraz, ebanjelizazioaren atzean, bi kulturetako balioak bereiztea ahalbideratzen duen interakzio prozesua dago, gaur egun edozein espezialistak onartzen duen bezala.

Ezaguna da ebanjelizazio arrakasta, harrerako gizartearen tradizio kultural eta sozialetik banaezina dela. Baina Japoniako euskal misiolarien kasuan —lan honetan eskuartean daukaguna— are gehiago da, esan badaiteke. Misioari artean babesle gotorrak izan dituen (eta dituen) iritzi zabalak zioenez, euskarak —eta euskal kulturak, oro har— bere kutsua utzi zuen Japoniako misioari zuzen garapenean, indoeuropar substratuaren aldean herri biek zuten berezitasun linguistiko eta kulturean. Hor daude diogunaren lekuko, egiaztatzen zailagoak izan arren, euskara eta japonieraren arteko antzak, orduko hainbat misiolari eta hizkuntzalarien arabera, alderdi batzuetan nabarmen, hiztegitik eta izaera aglutinatzailetik hasi eta joskeraraino.<sup>2</sup> Eta hor daude esandakoaren lekuko, egiaztatzen zailagoak ez ekartzearen, eta linguistikaren esparru estutik haratago, bi herrien antzekotasun estruktural soziokulturalak ere, arlo desberdin bezain anitzekoetan nabari direnak, usadio arkaiko<sup>3</sup> eta familia eta baserri izenetatik<sup>4</sup> familia egitura eta herentzia sistemaraino.<sup>5</sup>

Historialariek sarritan merezitako arreta ez jarri arren, euskal misioari zuzen gaia Japonian, aproposa da kultur interakzioen ikasketetarako, konnotazio ugari gaia baita, bai erlijio eta bai hizkuntza eta antropologia soziokultureleko arloetan ere.<sup>6</sup> Baina ez horregatik bakarrik; bere idiosinkrasia historikoagatik,

---

2. Gero aipatuko diren lanez gain, Masaomi Yoshitomi doktoreak Lovainako Unibertsitatean 1937an emandako hitzaldia, *Le Japon et sa civilisation: Essai sur l'origine commune des Basques et des japonais*, azpimarratzekoa da, ez hainbeste izan zuen eraginagatik (izan bazuen, txikia izan baitzen, eta izandakoa, jakintsu baino ezjakinen artean, batez ere), baizik eta funtsik gabeko konparaketaren erabileragatik, ikuspegi empiriko batetik bederen.

3. SATRUSTEGUI. *Japongo eta Euskal Herriko ohitura zaharrak: hitzaldia. Itzulpena: Suzuko A. Tamura.*

4. KAJITA. *Los pueblos y las casas en "caseríos" del País Vasco y en "ie" en Japón: estudio comparativo y analítico de "Yago" o nombre de casa.*

5. TODD. *La Diversité du monde: Famille et modernité.*

6. Arlo honetan ikerketak egiteko egokitasunaren beharra azpimarratu du Sho HAGIOk, "Beyond Reverse Orientalism. Acceptance of the Notion of "Basque" in Japan". Ikusi ere: SIERRA. "Euskal Herria

japoniarren mentalitateari egokitzeko sentsibilitate berezia erakusten duelako ere bai. Euskal misiolaritzak, izan ere, Japoniako katolizismoaren historiaren sortzetiko haria da. George Mueller adituaren arabera, katiximaren historiak hainbat fase ezagutu zituen Japonian.<sup>7</sup> Lehendabizikoa, Xabierko Frantziskoren helduerarekin batera hasi zen, 1549.ean, kristautasunera bihurtzea hango jatorrizko kultura uztearen baliokidea zenean. Bigarrena, Frantzia eta Japoniak itun komertzialaren ondoren ekindako modernizazioarekin batera dator, Meiji gobernuak 1873an kristauei emandako predikatzeke baimenarekin gorpuztu zena; fase horretan, japoniar hizkuntzaz gain, Japoniako pentsamendu kategoriak aintzat hartzen zituen berreraikitako katixima baten aurrean geundeke, non tokiko hizkuntza eta pentsamoldea funtsezkoak liratekeen. Eta hirugarrena, Bigarren Mundu Gerra osteko beroaldiaren ondorengo erlijio askatasunarekin dator, kristautasuna eta demokrazia estalki bereko gozokian eskaini zitzaizenean, amerikar irabazleen opari gisa; orduan, fededunentzat eta fedebakoentzat katixima bereizketa egiten hasi zen, euskal misiolariak zer esan asko izan zutelarik horretan.

Esan beharra dago misiolaritzari buruzko gehiengo historiografiak ebanjelio hedapenaren bi dimentsioetan jarri duela arreta, globalean eta nazionalen, analisi maila berean, pare-parean. Testuinguru inperial eta nazional ezberdinetan garatutako misiolaritzak aztertzen denean, helburua sarritan izaten da kategoria globalak (Egia, Jainkoa, Fedea, Karitatea, Lege naturala, e.a.) kontingentzia nazionalekin lotzea, ideia globalak tokiko pentsaerekin uztartzea. Analisi historikoak egiterakoan, nazio-estatuak unitate geografiko gisa identifikatzen dituzte, ongi zehaztutako ekintza- eta eragin-zentroak kokatuz, nahiz Europan (Erroma, Paris,...) nahiz Asian (Tokio, Nagasaki,...). Narratiba nazionala, beraz, bihurtzen da nagusi, tokiko berezkotasunak uniformizatuz eta misiolaritzak historia bezalako azpi-diziplinak barneratuz. 1873-1960 periodoan Japoniara bidalitako euskal misiolariak programa nazional baten parte zirela eztabaidaezina izanik (gehienak Pariseko *Société des Missions Étrangères*-eko kideak baitziren, Erromako kuriako aginduetara), eta haien kezkek, neurri batean, global eta nazionalak izan arren, nolabaiteko sinplifikazioa dagoela uste dugu gaia aztertzeke modu honetan.<sup>8</sup> Historia *magistra vitae* denez, eta bekatu berberak ez errepikatzearen, lan honetan ikuspegi orohartzailea hautatu dugu, perspektiba lokala eta globala uztartuz, eta zentroein baino, elkarloturei lehentasuna emanez, espazio eta denboran zehar, kidesun, antzekotasun, edo dena delako eran. Ikuspegi orohartzaile bat aukeratu izana ez da, inondik inora, bateraezina lan honetan antzemandako indar pluraltasunarekin. Izan ere, Japonian euskal misiolarien eskutik bultzatutako doktrina ebanjelikoaren

---

y Extremo Oriente. Interacciones vasco-japonesas en la modernidad"; 145-150 or.

7. MUELLER. *The Catechetical Problem in Japan, 1549-1965*.

8. BEILLEVARIE. "La participation de la Société des Missions Étrangères de Paris à l'ouverture intellectuelle du Japon dans les derniers temps du régime Shōgunai"; POLAK. *Soie et lumières: l'âge d'or des échanges franco-japonais*.

transmisioa hiru arloetan emandako indar topaketaren bidez soilik uler daiteke: tokikoa, nazionala eta globala, hain justu ere.<sup>9</sup>

Sauveur Candau (1897-1955) misiolaritzako oso adibide ona da japoniarren eskema kognitiboarekiko egokitzapen kulturalari dagokionez. Candauren “metodo psikologikoa” bezala ezagutu dena azterketa-kasu oso argigarria da historialari global batentzat. Tradizionalki, paregabeko pertsonalitate baten fruitu bezala aztertua izan da bere metodoa.<sup>10</sup> Are gehiago, maiz, mendebaldean Japonian baino sarriago —esan daiteke kausalitatez, kasualitatez baino— Vatikanoko aparteko ebanjelizatzaile zein Frantziako misiolari aberkoi bezala deskribatua izan da Candau.<sup>11</sup> Horrelako interpretazioek, narritiba nazionalen produktuez gain, erabat eskusibistak dira, bazter batean uzten baitituzte euskal eta japoniarren kulturen arteko kidetasunak, eta hauen eragina Candauren ikuspegi psikologikoarengan. Candauren metodoa, kidetasun horren kontzientziatitok egokitzapenera lihoakeen bilakaeraren gailurra izango litzateke, behinik behin.

Ez dago zalantzarik Candauren misiolaritzak baduela interes gehigarria. Apaiz katoliko ospetsuena eta errespetatuenetarikoa bilakatu zen Japonian, batez ere 1950eko hamarkadan. Beste misiolari intelektual batzuk ez bezala, Alfred Ligneul edota Joseph Flaujac esate batera, produktiboak bezain ezezagunak zirkulu katolikotik haratago biak ere, Candauren ahotsa elizatik kanpo ere ozen eta indartsu iritsi zen, saiakera eta egunkarietan (japonieraz idatziak gehienbat), eta baita ehunka hitzaldi eta irratsaioen bidez ere. MEP misiolari gisa bi egonaldi egin zituen Japonian, gerra aurrean (1925tik 1939ra) eta gerra ostean (1948tik 1955ean hil zen arte). Hala ere, ez da gaur egungo intelektualen artean nahiko ezaguna (ezta Japonian ere, arrasto handiena utzi zuen herrialdean), neurri handi batean ez baitzen izan pentsamendu sistematikoak eraiki zalea.<sup>12</sup> Baina, hain zuzen horregatik, ohiko misiolarien jardueratik haratago joan zelako eta japoniarren alderdi intuitibo eta estetikoaz jabetzen saiatu zelako, mendebaldeko metodo logikoak baztertuz,

---

9. Ikuspegi orohartzailer hau, zenbait nabarduraz harago, helburuetan baino formetan, aurki daiteke, esate batera, ondorengo lanetan: CONRAD. *What Is Global History?*; BELICH, DARWIN, FRENZ eta WICKHAM. *The Prospect of Global History*; eta PÉREZ GARCÍA eta DE SOUSA, *Global History and New Polycentric Approaches Europe, Asia and the Americas in a World Network System*, batez ere Pérez Garcíaen sarrera, 1-20 or.

10. Ikusi, ad., ROGGENDORF, “On the Missionary Method of Father Candau”; NEBREDA. “Japanese Mind and Christian Message”.

11. Adibideren bat aipatzerakotan, TANAKA. “La mort de ce prêtre français a fait pleurer tout le Japon”; eta DELBOS, “Le Père Sauveur Candau”. Salbuespen artean, DIHARCE, *Sauveur Candau, apôtre du Japon*.

12. Nolanahi ere, hori ukaezina izanik, egia da ere azken hamarkadan Candauren pentsaeraren inguruan interes berpizkundera sumatu dela; honen lekuko dira YAMANASHI, “Sōvūru Kandō shinpu to kindai Nihon no chishiki jin” (“Sauveur Candau apaiza eta intelektualak Japonia modernoan”); eta DOAK, “Kandō Shinpu no nihon bunka e no kōken” (“Japoniako kulturari anaia Candauk egindako ekarpena”)

japoniarrengana hurbiltzeko ahaleginean, bere mezua ezagutzea beharrezko bezain argigarria da.

Artikulu hau atal bati banatzen da. Lehen atalari Japoniako euskal misiolariak erakusten du, bere berezitasun eta ahuleziekin. Bigarrenak, misiolari hauengan, eta batez ere Candauaren formakuntzan eta bere lehen egonaldiko misiolarietan, Xabierko Frantziskoren espiritualtasunak utzitako eragina deskribatzen du. Hirugarrenak, Candau eta beste batzuen iritziak, bai euskara eta japonieran arteko antzekotasunak zein kidesun kulturalak batzen ditu. Laugarrenak, Candau japoniarren pentsaeraz nola jabetu zen aztertzen du, kidesunetik egokitzapenerako urratsa emanez. Ondorio labur batzuk lana osatzen dute.

## 2. EUSKAL MISIOLARITZA JAPONEN: BEREZITASUNAK ETA MUGAK

XVI. mendetik, badakigu aski hurbiletik nolako zen ebanjelioaren euskal zabalkuntza Japonen; XX. menderaino iraunarazi zuen tradizio gune trinko bat zeukan, formetan eta moduetan (helburuetan baino) birdefinitzen joan zen arren, honela adieraztea zilegi bada. Ideia hau zehatzagoa egin zen Shogunate erregimenaren azken urteetan, eta batez ere Meiji aroan (1868-1912), ediktu antikristauak indargabetu zirenean eta misiolariak baimendu zenean. Ebanjelioa zabaltzen daukagun tradizio trinkoaren frogak zuzenena Xabierko Frantzisko santua da, bera baita 1549. urtean Japonen lehen misio katolikoa bultzatu zuena eta Kristandadeko misiolariarik handienetakoa bihurtu zena. Gehi diezaiozun honi, Rodrigo de Aganduru agustinoa eta Martin de la Ascension frantziskotarren izenak Japonian misiolariak egin eta japoniera ikasi zutenak, bigarrena herri horretako lehen martiria izatera iritsi zelarik. Martiritzaren zerrendari jarraitu zioten Tomas Zumarraga, Domingo Ibañez Erkizia eta Miguel Aozaraza, guztiak gerora santu aitortuak izan zirenak. Ez da ahaztu behar Jacinto de Esquivel de Rosario domingotar gasteiztarrek, Manilako Santo Tomas Unibertsitatean irakasle zenean, hiztegi japoniar-gaztelera hiztegia argitaratu zuela 1630ean. Japoniarrak ebanjelioaz bereganatu nahiak bultzatu zituen denak misiolarietara dudarik gabe, baina tartean bazegoen sendo trinkotzen joan zen izpiritu unibertsalaren zama ere.<sup>13</sup>

XVI. mendean atrebentzia baizik ez zena, borondate handikoa eta nolabait bakanekoa, argi dago XIX eta XX. ean, gero eta gehiago, tradizio instituzionalizatu bihurtu zela. Japonera misiolarietara joan ziren euskaldunak —guztira hamabi, Iparraldekoak guztiak, identifikatu ditugun bezala (1. taula)— ibilbide instituzional komuna jorratu zuten, hastapenetan bidexka ezberdinak hartu zituzten arren, ondorengo datuak erakusten duten bezala. Hamarrek Pariseko

---

13. ETCHEGARAY. "L'effort missionnaire des Basques à travers les siècles"; 332-333 or.

*Société des Missions Étrangères* erakundeak (MEP-k) zuen seminarioan jaso zuten misiolari formakuntza. Hala ere, haietako lauk Baionako apaizgaitegi handian ikasi zuten batxilergoa, lauk Larresoroko apaizgaitegi txikian, eta bik Uztaritzekoan. Hainbat misiolarien ikastokia ezagutzen ez bada ere, nabaria da guztien intelektueltasunaren *lumen vitae* nagusia, bakarra ez esatearren, Eliza izan zela.

1. taula. Euskal MEP misiolarien zerrenda Japonian

<b>IZENA</b>	<b>Jaio - heriotza urteak</b>	<b>Ordenazio urtea</b>	<b>Japonian sarrera</b>	<b>Lehen misioa</b>
<b>AÏNCIART, Jean Pierre</b>	1923-1987	1948	1948	Fukuoka
<b>ANCHEN, Pierre Hilarion</b>	1879-1967	1903	1903	Hakodate
<b>CANDAU, Jacques</b>	1920-1990	1942	1946	Hanoi (Vietnam), Yokohama
<b>CANDAU, Sauveur</b>	1897-1955	1923	1925	Tokio, Yokohama
<b>CHABAGNO, Jean</b>	1881-1975	1906	1906	Tokio
<b>GRACY, Léon</b>	1875-1945	1897	1897	Nagasaki
<b>HARGUINDEGUY, Dominique</b>	1935-	1962	1963	Shizuoka
<b>LABARTA, Manuel</b>	1926-2015	1950	1951	Fukuoka
<b>LABARTHE, Laurent</b>	1924-2001	1948	1954	Urawa
<b>LISSARAGUE, Jean Baptiste</b>	1876-1937	1901	1901	Tokio
<b>MUGABURE, Pierre Xavier</b>	1850-1910	1874	1874	Tokio

**Iturria:** IRFA (*Institut de Recherche France-Asie*)-ko MEPeko misiolarien fitxa indibidualak, *Société des Missions Étrangères de Paris (MEP)*.

Euskaldunek hezkuntza eta administrazio erakunde garrantzitsurik ez zeukatenez, Elizaren babespean aurkitu zuten unibertsiteate moduko zerbait, goi-mailako ikasketen hutsunea bete ahal izateko. XIX. mende bukaeran, haatik,

Vatikano II. Kontziliara arte bezalaxe, misiolarien formazioa eta pentsamoldea kutsu ideologikoz beterik zegoen. Goian aipaturiko seminarioko apaiz irakasle gehienek pentsamolde partikular bat helarazten zieten ikasleei, liberalismoaren ideiei kontra egitea eta protestantismoaren eragina ekiditea helburu zituena. Hala ere, egia den bezala Frantzia III. Errepublika 1875an ezartzearekin batera arrazionalismo positibistaren aurkako jarrera irakatsi zela, ukazina da halaber Elizaren pentsaera aldakorra izan zela eta XX.en hasierako apaizgai asko katolizismoaren ikusmolde integristatik —eta, muturrera eramanda, totalitariotik— urrun zeudela. 1920. eta 1960. arteko hamarkadok misiolari antiliberal eta antikomunista hainbaten testigantza erakusten badigute ere, demokrata kristautasuna eta sentsibilitate sozialaren bideak ere hautatu zituztela erakusten digute.

Hala ere, protestantismoaren hedadura, Japoniako unibertsitate eta ikastetxeetan ondo errotua, euskal misiolaritzaren aldekoa izan zen Japonen, erantzun katolikoa bultzatu zuelako besterik ez bada ere. Orduantxe hasi ziren agintari katolikoak Japoniako goi-mailako ikasketez arduratzen eta aurrean zuten erronkaz jabetzen: protestanteek ongi hezitako klase sozialetan goi-mailako hezkuntzan arreta jartzen zuten bitartean, Eliza katolikoak arlo hori ia baztertuta zuen eta Japonia hegoaldeko klase baxukoaren ebanjelizazioan zuten arreta jarrita, batez ere arrantzale eta laborarien artean. Karl Marxen materialismo historikoaren eraginez gainera, katolikoek gidari protestante espiritualei aurre egin behar zieten, Kanzō Uchimura bezalako liderrak, *Churchless Christianity* (edo “eliza gabeko protestantismoaren”) izeneko mugimenduaren fundatzailea, Japoniako intelektuala artean eragin handia eta sakona izan zuena.<sup>14</sup> Ez da ahaztu behar lehen unibertsitate katolikoa 1914an eraiki zela, Sophiako hain zuzen ere, eta hau jesuitena zela.<sup>15</sup> Unibertsitate hauek pribatuak ziren.

Testuinguru honetan, nabarmentzekoa da predikari eleanitzen eredia agertu izana euskal misiolaritzan, XX. mendean ere argi emateko bortitza. Eredu honen egoslekua XIX.eko Larresoro eta Baionako apaizgaitegi loratsuetan bilatu behar da, Pierre Xavier Mugabure (1850-1910) dugula erreferentzi nagusia.<sup>16</sup> 1906tik 1909ra Tokioko artzapezpikua izango zen eragin handia izan zuen Iparraldeko misiolarien artean, lapurtar eta baxenabartarren artean eskierki, XX.eko lehen partean, Léon Gracy azkaindarrengatik hasi eta Jean

---

14. Japonian marxismoaren eragina nabaria izan zen 1920ko hamarkadatik aurrera, batez ere.

15. Japoniako unibertsitate ospetsu eta zaharrenetarikoen artean, protestanteek Doshishakoa zuten Kyoton, eta Rikkyokoa (St. Paul's) eta Aoyamakoa (Methodists) Tokion. Katolikoaren ahaleginak askoz berantiarraioak izan ziren: Japoniako Hezkuntza Ministerioak Sophiari eskola bereziaren statusa 1913an eman bazion ere, erabateko unibertsitatea 1928ra arte ez zen izan, Giza Zientziak eta Merkataritza Fakultateak sortu zirenean.

16. Mugaburen bizitza eta misiolaritzari buruz, ikus daitezke: FABAS, “Un missionnaire basque Mgr Pierre Mugabure”; MARTIN, “Peter Francis Mugabure: second archbishop of Tokyo (1850-1910)”; eta “Nécrologie. Sa Grandeur Monseigneur Mugabure. Archevêque de Tokio”, Beloko Artxiboa, 341-343.



Chabagno nahiz Sauveur Candau-renganaino, beste batzuen artean. Japonera iritsi zenetik 1875an, Mugabure ez zen irakaskuntzan bakarrik jardun, latina irakatsiaz Tokioko apaizgaitegian edota frantsesa Unibertsitate Inperialean, beste misiolari asko bezala. Batez ere, azpimarratzekoa da berarekin sustraitu zela egundaino ezagutu dugun ofizialtasun katolikoa Japonen (ordezkaritza apostolikoa, erlazio diplomatikoak, e.a.), Vatikanoko Japoniako Inperioen agintariekin izango zituen harreman ofizialak, aldeak alde, zirela bide. Paper hori nahiko argi ikusten da Mugaburek Pio X.en aita santuarekin izan zuen audientzian 1905an, honek eskatu zionean Meiji Handia enperadoreari eskutitz bat helarazteko. Handik gutxira, monsinore William H. O'Connelllek Japon eta Aulki Santuaren arteko erlazio diplomatikoak abiatu zituen.<sup>17</sup> Mugaburen dohainek hitzaldi eta hizkuntzetarako (japonieraz gain, zazpi hizkuntza menperatzen zituen *Pater concionator* ezagutu izan zenak) asko lagundu zioten erreferente bat bilakatzeko orduan.

Ilido beretik, mende berriaren ezaugarri bezala, Nagasakiko Seminario Handia aipatu beharrean gaude, luzaroan Japoniako komunitate katolikoan apaizgaitegi garrantzitsuena (Tokio eta Osakakoarekin batera, baina hauek ez zuten aurrenak zuen ospe eta itzal historikoa). Ordura arte Japonen ezagutzen ez zuen apaizgaitegirik goranahiena bihurtu zuen Léon Gracy euskal misiolariak, alde batetik François Bonne bere aurretiko artzapezpikuaren jarraitzaile izanik, eta bestetik joera berrien aitzindari. Izan ere, Gracyren hamabost urteko zuzendaritza (1910etik 1925era) amaitzen denean, aparteko ikastetxe gisa agertzen da Nagasakiko Seminarioa, eraikuntza dotore eta berri batetik beretik hasita, Urakamiko Motobarachon kokatu zena. Norabide berezi honi Gracyk zuzendaritza hartuz geroztik ekin zion, eta Seminarioak urte oparoak bizi izan zituen, MEP-koek frantziskotarrei egoitza saldu zieten arte 1932an. Horretaz gain, arlo horretan hain ezaguna ez bada ere, idazle trebea ere izan zen Gracy, besteak beste, katolizismoaren egoera eta historia biribiltzen saiatu zena, tokikoa nahiz inperiokoa: Ryūkyū artxipelagoari buruzko ohar batzuetan, lehena, eta *Il Cattolismo nel Giappone* izenburuko argitalpenean, bigarrena. Laburbilduz, esan daiteke *de facto*, ekintzen frogen poderioz soilik, Nagasakiko Seminarioaren barrutian, erabateko aldaketa eragin zuen indarra, Gracyri zor zaiola, beste inori baino gehiago.<sup>18</sup>

Japonen jardundako euskal misiolariak bi erronka nagusiren aurrean aurkitu ziren. Batetik, hango hizkuntza menderatu eta orduko apostolutza premietarako egokitu beharra. Oro har, Mugabure eta Gracyrengandik hasita, Jean Baptiste Lissarague nahiz Jean-Pierre Aïnciartekin jarraituz, eta Candau bera bezalaxe,

---

17. Philippe Fabasen arabera (2006, 13. orr.), eskutitz hau eta Mugaburen Erromarako bidaia, Vatikanoa eta Japonen arteko erlazio diplomatikoen hasiera izan ziren, gero, 1919an, Japoniako ordezkari apostolikoa gauzatzeko balio izan zuena.

18. Jean GUENNOU, "Léon Gracy. Notice nécrologique". Belokeko Artxiboa. Baita ere ikusi: <https://www.irfa.paris/fr/notices/notices-biographiques/gracy>

euskal misiolariak, beste askok ez bezala, erraz eta maisutasunez ikasi eta hitz egiten zuten japoniera —izan ere, ezaguna da Candauren japonieraz zeukan abiltasuna bertako askorena baino altuago zela, edota Añciart ‘japoniarrak baina japoniarragoa’ zela.<sup>19</sup> Hizkuntzaren gaia, halere, aurrerago aztertuko da. Bigarren erronka da gizarte barrenean komunikabide eta adierazpide bezala jasotzeko estrategia soziala eta erlijiozkoa. Biok elkarri estu lotuak zeuden —maiz, baina ez beti, ezta indar berdinarekin ere— eta estrategia ezberdinen artean, lanen eta ideien argitalpenarena izan zen bat; japonieraz edota beste hizkuntza batean.

Euskal misiolari hauen biografiak azertu ondoren, ez dugu uste, oro har, argitalpen sailean mamitutako eginahalaren arrakasta uka daitekeenik. Alde batera utzita Candauren ekoizpen literarioa bera (osoki ez bada, partzialki behintzat aurrerago aztertuko dena), harrigarria da ematen den argitalpen kopuru handia, are era pribatuan moldatutako lanak ere, kontuan izanik misiolari talde txikia dela (hamar besterik ez).

Japongo katolizismoaren egoerari edota hango pentsaerari egokitu beharrei buruzko lanak baizik ez dira aipatuko, hainbat hutsune lagatzeko arriskua dagoen arren. Japonieraren irakaskuntzarako, esaterako, Gracyk argitaratutako bi ikasliburu azpimarratzekoak dira: *Leçons de japonais* (1941koa) eta *Petit guide japonais français annamite* (1942koa), biak Hanoian plazaratutakoak, Gracy Tonkineko *Résidence Supérieur*-eko irakasle zenean, eta Vietnamgo interpreteen prestakuntzarako idatzitakoak. Eskuliburu hauetaz gain, nabarmentzekoak dira beste lan batzuen izate praktikoa —ikaspideak, hiztegi bereziak, e.a.— azken helburu bezala irakaskuntza dutela, japonierari buruzkoa edota Japonen bide batez. Multzo honetan aurki daitezke, adibidez, Mugaburek eta beste gotzain batzuk idatzirik *Oeuvre d'éducation pour les étudiants japonais*, Parisen argitaratutakoa; eta Lissaraguen ausarta bezain eztabaidagarria den ‘La soi-disante parenté des langues basques et japonaises’, han eta hemen oihartzun zabala izan zuena, are elkarren kontrako diren iritzietan ere. Euskal misiolarien artean hainbeste interes piztu zuen hizkuntzaren (euskara edota japoniera) gaiarekin batean, dela Japoniako legedian dela legedi zibilean *in genere*, hizkuntza arlotik kanpora, eguneroko bizitzako barrunbeei buruzko lanak ere argitaratu zituzten: honen lekuko da Jean Chabagnoren gida, *Le Mariage des infidèles dans ses rapports avec la loi civile en général et la loi japonaise en particulier*, 1913an kaleratutakoa. Azkenik, beharrak eraginda, ez gurariak edo burugogorkeriak, hobe beharrez edo publikatu zuten Japoniako elizbarrutiko egoeren gaineko hainbat lan. Hauen artean nabarmentzekoak dira, adibidez, Ryūkyū eta Urawa diozesien deskribapenak, Gracy eta Jacques Candaurenak, hurrenez hurren; eta azken honen artikulua kritiko bezain iradokitzaile eta nahiko

---

19. “Jean-Pierre Añciart (1923-1987). Notice nécrologique”. In : <https://www.irfa.paris/fr/notices/notices-necrologiques/añciart-1923-1987> “Jean-Pierre Añciart (1923-1987). Notice biographique”. In : <https://www.irfa.paris/fr/notices/notices-biographiques/añciart>

probokatzaila, 'Why less conversions?', Japoniako gerraosteko konbertsio krisialdiaren analisi gordina eta zorrotza.

Japon eta bere hizkuntzarekiko maitasun honek Euskal Herria eta euskararekiko atxikimenduan izan zituen bere kideak, elementu folkloriko eta elizarenaz gain, eta sentimendu berdina aurkitu dugu ia euskal misiolari guztiengan. Izan ere, misiolaritzak zekarren urruntzeak euskal identitatearen sena —agerikoa nahiz ezkutukoa— nolabait indartu zuen bezala, japoniera ikasteak nolabait bulkatu zuen japoniar eta euskararen arteko antz eta ezberdintasunen bilaketa, esparru desberdinetan: gramatika, morfosintaxia, hiztegia, e.a. Are gehiago, bi hizkuntzen arteko elementu komunak aurkitzeko gaitasuna urrutirago eraman zen, euskaldun eta japoniarren arteko kidesuna beste maila batzuetan ere bilatuz, maila guztietan ere ageri zenez: kultura, historia, gizartea, kirola, e.a. Labur esanda, egun batean ulergaitza zirudiena guztiz ulergarria eta zentzuzkoa gertatu zen Japoniako hizkuntza eta kulturaren murgildu ahala. Gai hau hurrengo ataletan zehatzago arakatuko da.

Beste hainbat arlotan bezala, misiolarien artean ere nabaritzen zen, ama hizkuntzak indarra eta erabilera, urruntasunak eragindako oztupoengatik, galdu ahala, gehituz zihoala norberaren identitatearen sena eta landu beharrearekiko ardura. Euskal kontzientziarioari dagokionez, Jean Chabagno aipa genezake bereziki. 'Arrazako euskaldun hau, arrokari zizelatu, bai moralean eta fisikoan ere', bere biografo batek deskribatzen zuen bezala,<sup>20</sup> Japonen aski ezaguna izan zen, 1906tik 1914ra misiolaritzan jarduteagatik Yokohamako Kanawaza eta Wakabachoko parroketan, eta geroago, 1933tik aurrera, Japoniako misio ordezkaria MEPeko Kontseilu Zentralean, MEPeko idazkari nagusia bihurtu arte 1950eko hamarkadan. Frantziako euskal kolektibitate artean, askoz ezagunagoa izan zen, MEP-eko Pariseko seminarioan irakasle gisa aritu zenean, euskaldun errefuxiatuak eta euskal akzioaren alde egin zuelako sarritan eta gogoz. Bereak edo beragatik izan ziren, adibidez, Parisera joaten ziren euskaldunei emandako aholkuak eta laguntza, lana bilatzen zebiltzanean, edota euskarazko kurtsoaren inaugurazioa Parisen, edota urtero meza bat antolatzea euskaldunentzat Senako hirian (Bilboko Euskaltzaindiaren kide izateak ere, bere euskaltzaitasuna indartu zuen, ahuldu baino).<sup>21</sup> Misiolariengan orokorki, euskal kultura eta hizkuntzarekiko atxikimendua euren jaioterriarenganako maitasun sutsu batean sustraiturik zegoen.

---

20. "Jean CHABAGNO (1881-1975)". In: <https://www.irfa.paris/fr/notices/notices-necrologiques/chabagno-1881-1975>

21. CAMUS ETCHECOPAR, Argitxu. *La Maison Basque de Paris. Pariseko Euskal Etxea (1952-2002)*; 3.1 atala; ETCHEBERRY, Jean Baptiste. "Aita Jean Chabagno (1881-1975)". In: *Gure Herria*, 45. zkia., 1975, 173-182.

### 3. SAUVEUR CANDAU, XABIERKO FRANTZISKOREN ARGIPEAN

Alde eta alderdi ugari ditu Sauveur-Antoine Candauren (1897-1955) bizitzak, ez gutxiago bere lanak eta legatuak. Japonekoak areago izan dira, gure artekoak baino. Halere, ordea, gure artean ezezagunagoak direlako batetik eta geurekikotzat dauzkagulako bestetik, ez lukete itzalpean ezta ilunpean jarraitu behar. Eta pertsonaia aparta eta paregabea izan zelako, eta euskal japoniar kidesuna inork, inon eta inoiz baino gehiago arakatu zuelako, guri dagokigu, etxekoa dugunez, haren izena eta omena argitara ematea eta ezagutaraztea.

Candauk —Bigarren Mundu Gerra aurreko lau hamarkada aztertzen dira soilik atal honetan— sehaskatik izan zuen Xabierko Frantziskoren itzal luzea. Donibane Garaziko Jatsu familiaren alboko etxean jaio baitzen, gure santua oporretara noiz edo noiz joaten zen etxe inguru berean. Hamaika anai-arrebetatik zazpigarrena, erabateko fede eta bokaziozko familia batean hazi zen: aita, Felix Candau, zorrotza eta arteza, oihal merkataritza zuen ofizioz, eta meza eta debozioa afizioz; bere anaia zaharrago bat Baionako apaizgaitegi handian ikasten ari zela hil zitzaion; eta beste bat, apaiz bihurtu zen. Berak ere jaso zuen, bide-erakuslez inguraturik, familiaren bokazioa, Xabierko Frantziskoren behialako erramu hostoak biziki eta hurretik baitzituen; horrela, herriko Fraideen eskolan burutu zituen lehen ikasketak, ondoren Beloken batxilergoko ikasketak (Larresoroko apaizgaitegi txikia Estatuak konfiskatu baitzuen 1906an), eta, mundu gerraren mobilizazio ostean, MEP-eko Pariseko Seminarioan prestatu zen, misiolaritza bokazio eta ofizio izan nahian.<sup>22</sup>

Misiolari bide horrek, ordea, bidegurutze asko izan zituen. Bide-adarrik onena hautatu ote zuen ala ez denborak esango zion, baina, hasteko, Pariseko Institutu Katolikoan ikasi zuen filosofia modernoa bi urtez, Jacques Maritainen eskutik (Candauren gustuko pentsalaria), eta han aurkitu zuen filosofia abangoardista eta berria baino berri bat: errealismo tomista, zientzia esperimentaletan oinarritzen zena, Lovainan erakutsitako neotomismoa baina zabalagoa, batez ere Maritain beragatik, baina baita ere — eta ez maila apalean— beste batzuegatik: Gustave Thibon, Charles Journet eta Nicolas Berdiaeff, besteak beste. Maritainengandik ikasi zuen, esate baterako, ezagutzaren izaerak adierazpen anitz dituela (zientifikoa, filosofikoa, errebelatua), ezagutza mota ezberdinetara garamatzana, baina mota hauek ez direla beraien artean independenteak, isolatuak eta, askoz gutxiago, baztergarriak, baizik eta osotasun organiko eta koherente bat osatzen dutela.<sup>23</sup>

---

22. Xavier DIHARCE, *Sauveur Candau, apôtre du Japon*, da orain arte lan biografiko zehatzena eta dokumentatua. Candauren bizitzari buruzko beste lan aipagarrien artean, Fernand DELBOS, "Le Père Sauveur Candau"; Jacques CANDAU, "Bon serviteur, vaillant missionnaire"; Thomas IMMOOS, "Ein grosser Apostel der Intellektuellen"; eta "Note nécrologique [Sauveur Candau]". In: *Bulletin de la Société des Missions-Étrangères de Paris* (Hong Kong), 9 zkia., 1063-1067 or.

23. MARITAIN, Jacques. *Distinguer pour unir ou les degrés du savoir*. Paris: Desclée de Brower,

Idea hauek eta antzekoak, Candauk hedatuko zituen hitzaldi askotan eta Wasedako unibertsitatean beteko zuen 'Garai modernoek kritikako' katedran.

Ondoren 1921-1924ko Erromako egonaldia iritsi zen, Vatikanoren aldaketa garai batean —Pio XI.ena aita santua aukeratu zuten eta Candauk obedientzia zin egin zuen. Berez, egonaldia MEP-eko buruek agindu bazuten ere (apaizgaireren iritzia edozein izanda ere), honek izan zituen ondorioak, behetik jota, Candauri hurbileko etorkizunean mesedegarriak gertatu zitzaizkion. Handik etorri baitziren Jesuiten Gregoriana Pontifize unibertsitatean lortutako bi doktoretzak, filosofian bata eta teologian bestea; eta landutako harremanak, adibidez, Fumasoni Biondi kardinala bezalako pertsonalitate garrantzitsuarekin (*Propaganda Fide*-ko prefeta, hots, herrien ebanjelizaziorako Erromako Kuriak zuen batzordeburua); edota italiara eta latina ikasteko eta sakontzeko aukera. Baina, hala eta guztiz, egonaldi honen azpian zegoena ez zen segur aski Candauk buruan zuena, zerbait sakonagoa baizik: Jean-Pierre Rey Tokioko artzapezpikuak eta MEP-eko agintariek seminario berri bat eraiki zuten 1915ean, eta, zuzendaritzarako, hainbat apaiz bidali zuten Erroma eta Frantziara, hauen formazio intelektuala hobetzeko; horien artean Pierre Monjean, Penangko seminarioko buru izango zena. MEP-eko superiorrak, Jean Budes de Guébriantek, Candau begiz jota zuenez, honen egonaldia luzatu egin zuen, teologiako prestakuntza buka zezan. Horrenbestez, Erroman gertatu zen Candauaren lehen jauzi kualitatiboa, anartean pausoz pauso zekarren garapenarekin guztiz bestelakoa.<sup>24</sup>

Bigarren jauzia, aurrekoa baino ausartagoa eskierki, Japoniako lurretan emandakoa da. Xabierko Frantziskoren arrastoei jarraituz, Candau Tokiara heldu zen 1925eko urtarrilean, jada apaiz ordenatua (Baionan, 1923an). Apaiztasuna zen Japoniako Elizaren izaeraren habe eta sostengu nagusia. Atzerrikoak hasieran, bertakoak geroago, apaizen inguruan sortu eta hazi zen hango komunitate katolikoa. Hartarako, apaizgaiak prestaketa-ziklo bat bete behar izaten zuen, normalean latinez egiten zena, Japoniako seminario batean —garai hartan bost zeuden. Haietako batean, Tokioko Segikuchiko apaiztegi txikian, hartu zuen Candauk zuzendaritza, eta teologia eta filosofia tomistaren kontzeptuak irakatsi zituen, japonieraz denbora gutxira, hasieratik ez bazen.<sup>25</sup>

Hala ere, garai hartan, Vatikanoren menpe legokeen apaiztar elitearen formakuntza zen kezka eta erronka nagusia. 1924an Tokion ospaturiko II. sinodoan ardura hau azaleratu zen, eta eskualdetako seminarioak sortzeko beharra agerian geratu zen. Erromako delegatu apostolikoak MEP-eko

---

1932.

24. Pasadizo hau Jean GUENNOUK, MEP-eko artxibistak, Xavier Diharceri idatzitako eskutitz batean aurki daiteke (Paris, 1962ko otsailaren 22an). "Sauveur Candau" Artxibo pribatua.

25. HECKEN. *Un Siècle de Vie Catholique au Japon 1859-1959*; 221-227, 233-234 or.

agintariei seminario pontifikal bat eskuratzeko prest zegoen, baldin eta hauek horretarako irakasleez hornitzeko gai baziren. MEP-koek erronka onartu zuten, bi txori hilez harri bakar batez: batetik, Tokioko elizbarrutian seminario handi bat zegokeen, beste elizbarrutietako apaizgaiak hartzeko gaitasunarekin eta MEP-en ardurapean; eta bestetik, *in actu oculi*, beste erlijio-ordena batzuen esku sartzea saihestuko zuketean (batez ere, Jesuitena, lehiakide, arerio baino). Proiektu honek orduko Elizako agintarien pentsamolde feudala agerian uzten du, bikario apostoliko bakoitzak, bere seminarioa eduki eta kontrolatzea ez ezik, beste anaidi batzuetako irakasleak errefusatzearaino ere iristen baitzen.<sup>26</sup> Testuinguru honetan sortu zen Tokioko seminario handia 1929an, eskualdekoa bilakaturik bi urte beranduago. Candau horko errektore izendatzen dutenean betetzen da goiko paragrafoan aipatu dugun bigarren jautzia.

Pentsalari eta irakasle, maiz sumarazi zuen bere burua hizlari trebe eta aparta bezala, talentu handiko *orateur-a*, Japoniako inperioaren mailaraino gailendu zen mordoxkaren erdian. Atzerriko azenturik gabe mintzatzen zen japonieraz, 'biolin-jole batek bere tresna jotzen zuen bezala'.<sup>27</sup> Bai filosofian, bai zientzia eta erlijioaren arteko erlazioan, edota psikologian nahiz historian, ez zen beretzat azter-sail ezinezkorik, baten bat aurkitzen baldin bazen, azaldu edo adierazi gabe geratu zitzaionik gerra aurreko garaietan emandako dozenaka eta dozenaka hitzaldietan. Horren froga adierazgarria da 1928ko apiriletik uztailean emandako hitzaldi kopurua: 26 guztira!

Horietako batzuk gogora ekartzea merezi du.<sup>28</sup> Lehenengotariko bat *Hochi* aldizkariako aretoan emandakoa izan zen, 1928an, *L'Eglise et l'Évangile* gaiaz; 1931n *L'Action catholique*-ri buruz mintzatu zen 700 entzuleren aurrean; hurrengo urtean, Sophiako unibertsitatean, *L'Université au Moyen Age et St-Albert le Grand* izan zen; 1935ean, *L'apologie du catholicisme*; 1936an Wasedako unibertsitateko konferentzia zikloan, *La réalité de l'invisible*-taz jardun zuen; eta 1937an, Espainia gerra-garaiko arazoei buruz, arreta doktrina boltxebista eta doktrina katolikoaren arteko talkan jarritz. Ez zen, ordea, Candau ezezkua esaten zekienetakoa ezta prestatze lanetan denbora gehiegi ematen zuenetakoa ere. Ondorengo anekdotak, bere iloba Jacques Candauk idatzia, argi erakusten du nolakoa zen bere espontaneotasuna eta ontasuna: behin, Candauk gonbidapen bat jaso zuen telefonoz, italiar baten partetik, hezkuntza arazoei buruzko hitzaldi bat eman zezan. Onartu ondoren, aitortu zion ilobari ez zuela italiar hura ezagutzen ezta zehazki zein zen gaia eta haren ikuspegia. Hurrengo egunean, bikain baino hobeto mintzatu zen bi ordu baino gehiago.<sup>29</sup>

---

26. SIBRE. *Le Saint-Siège et l'Extrême-Orient*; 300-301 or.

27. GUENNOU, *op. cit.*, "Sauveur Candau" Artxibo pribatua.

28. Candauren lehenengo hitzaldia 1926ko urriaren 3an izan zen: "Asisko Frantzisko Santuaren espiritua", santu honen 700. urteurrenaren ospakizunean emandakoa.

29. CANDAU, Jacques. "Bon serviteur, vaillant missionnaire. Le P Sauveur Candau"; 172 or.

Etxe eta ate izan zituen ikastaro eta jardunaldiak ez dira aipatu besterik egingo hemen. Wasedan aritu zen, astero frantses literaturako ikasleei mintzaldiak emanez, eta baita katedratiko gisa ere 1933tik 1939ra, “La philosophie contemporaine en France” kurtsoa irakatsiz; Tokioko *Institut Franco-Japonais*-ean psikoanalisi-gaiak jorratu zituen; Tokioko Ateneo frantsesean, Sophiako unibertsitatean eta Jesusen Bihotzaren unibertsitatean ibilia zen behin baino gehiagotan, hizlari nahiz gidari moduan hainbat ekitalditan. Parte hartu zituen elkarte erlijioso eta ekintza sozial guztiak zehaztea eginkizun luzeegia litzateke. Aski izan bedi, oraingoz behintzat, nabarmenenak gogoratzea: adibidez, elizbarrutiko eginkizun ebanjelikoen artean, 1932az geroztik Candauk zuzendu zuen gazte gunen bat, “L’Association diocésaine des Sociétés paroissiales de jeunesse”; eta 1938an Protaganda Fidek “Action Catholique” batzordeko idazkari-kargurako hautatua izana.

Zuhurra, komunikatzailea eta irudimen handiko dibulgatzaile aparta izateaz gain, bazuen Candauk beste dohain nabarmen bat ere: moldatzeko gaitasuna izan zuela, erlijio edo hobeki gizarte entzulegoaren pentsamolde eta kezketara. Entzulegoaren izaera ez zitzaion inporta (ikasleak, goi-mailako damak, bankeroak, langileak, poliziak); maila eta tankera desberdinetako publikoaren aurrean jardun arren, hitzaldietan jarrera berberari eusten zion beti: begirunez berba egiteari. Errespetu handikoa ez ezik, arras gizabidsua ere bazen: kontzientzia-libertatea sakratua zen berarentzat, hitz erlijioso hau erabil badaiteke. Sarritan esan ohi izan da ez zela hizlaria sakona, bere ezagutza historikoa nahiko gainazalekoa zela (adibidez, erritoei buruzko gaien), vedette xamarra; beharbada, badaiteke zenbait gaietan, tontor garaietan gainez gain ibili izatea behin baino gehiagotan. Halaz eta guztiz ere, aroltasuna (arintasuna baino) sarritan hautua izan zen: entzulegoari eskaintzen zion honek momentuan jasan zezakeena soilik, ez gehiago, ezta gutxiago ere. Ez zituen gustuko, beraz, gizabide japoniarrak hainbestetan aldarrikatzen duen konplimendu ditiranbikoak eta adierazpen hutsalak.

Esana dirudi dagoela garai hartan ez zirela japoniar hizlariak ugariak izan: urriak eta ospe gutxiok bestalde. Izan ere, orduan nekez bil zitekeen, inguruan nahiz urrutiago, mundu akademikoko irakasleen artean (aho atzerrikoen nahiz kanpotarren artean) arlo horretan Candaurekin parekatzeko modukorik. Eta ez hitzaldietan bakarrik, idazkietan ere hazitegia izan zen Candauren baratzea, oraintsu ezagutzen hasia bada ere. Hau dela eta, darabilgun hariari zeharka baizik ez bada ere, oharkizun bat erantsi behar zaio, hurrengo atalera pasatu baino lehen. Ez zion Candauk, erabat esanik, japonieraz idazteari uko egin, are gutxiago aldizkarietan eta prentsan argitaratzeari. Horren testigantza eman dezakete bai “Koe” izeneko aldizkari apologetikoak eta bai *Journal Catholique*-k: lehenengoaren zuzendaria eta idazle oparoa izan zen 1930etik aurrera; eta bigarrengoan, kolaboratzaile sutua. Ez ziren izan hauek gerra aurretik prentsa katolikoan izandako ardura bakarrak —Japoniako lorategi emankor hartan, 1915-1945 artean, 67 aldizkari katoliko argitaratu ziren: 1936tik 1939ra,

zuzendari lanetan agertzen da bai *Actio Missiolaria*-n, Japoniako apaizentzako latinez plazaratutako aldizkarian, eta bai *Cahiers d'Information*-en, misiolarien agerkarian.

Misioetara iritsi bezain laster, japonierazko irakaslea izan zuen: Kinjiro Murakoshi, sinologian aditua, nahiz eta ez metodo bakarra erabili. ‘Harritu ninduen hasieratik’, aitortu zuen Candauk berak beranduago, ‘adintsuengatik jasotzen nituen aholku ugariak hizkuntza ikasteko metodoei zegokienez. Zenbait asteren ondoren, metodo bakoitzak zerbait ona bazuela onartu nuen, baina azken finean hizkuntzaz jabetzea oso lan pertsonala zela ere bai [...] Esperientzia honen ondoren, ez zitzaidan sekula suertatu misiolari gazte bati nire metodoa inposatzea’.<sup>30</sup> Egia da, dena den, bazuela Candau eskola-maisu eta langile amorratuak hizkuntzetarako izugarrizko dohaina: orduko lekukoen arabera, ‘sei hilabetetan japoniera erabat menperatu zuen’.<sup>31</sup>

Ikaspen metodoak ahotan hartuz gero, nekez utzi daiteke aipamen berezirik gabe, Candauen bizitzan, Xabierko Frantziskoren izena, honen idatzien eskutik nahiz bere gisa hainbeste modu horretako arrasto utzi ziona. Japoniako euskal misiolarien *lux et dux* deitu daiteke, Candauen libreprintsamendu sinismena tentatzeko beldurrik ez bagenu. Honako hau izan zen, esate batera, Japoniara heldu eta berrogei egunera santuak sentitu zuena: ‘Oraingoz, estatuak bezala gaude haien artean: hitz egiten dute, gugaz asko hitz egiten dute eta gu, hizkuntza ulertzen ez dugunez, isilik geratzen gara, haur txikiak bihurtuz eta hitz egiten ikastera murriztuta’.<sup>32</sup> Eta honako hau, ia lau mende beranduago, Candauk sentitutakoa: ‘Ekialde urruneko herrialde honetan, dena da bitxia. Ume txikia izan behar duzu, hitz egiten, idazten, zutik egoten ikasi behar da’.<sup>33</sup> Isilik egoten eta entzuten ikastearen bertutea aurrerago aztertuko da.

---

30. “Brouillon d’une lettre écrite à l’auteur d’une encyclique”, [n.d.]. “Sauveur Candau” Artxibo pribatua. Hala ere, prentsan argitaratutako hainbat zutabetan (adib., “Kuruma to kaze to jibiki to” [Rickshaw, Cold and Dictionary]), Candauk atzerriko hizkuntzak ikasteko bi metodo gomendatu zituen. Nanyan GUO. *Making Xavier’s Dream Real. Vernacular Writings of Catholic Missionaries in Modern Japan*; 110-111 or.; eta Shinichiro ARAKI. *Zwei Seiten der Welt*; 12 or.

31. Toshiyuki MIYAMOTO, “Nihon to sekai-teki yūjō no shito: S. Kandō shinpu shōden” [“The Apostle of Japan and Worldwide Friendship: A Short Biography of Father S. Candau”]. In: S. Kandō Ikkā Senshū [S. Candau One Volume Selection]. Tokyo: Shunjūsha, 1968, 271-281 or.

32. “Xabierko Frantzisko, Kagoshima, 1549ko azaroaren 5ean, Goako Jesuitei (90. eskutitza)”. André CNOCKAERT et al. *Ignace de Loyola, François Xavier, Pierre Favre*; 53-54 or.; eta DIHARCE. *Sauveur Candau, Apôtre du Japon*; 59 or.

33. [DIHARCE], “Sauveur Candau, Apôtre du Japon et de l’Amitié Universelle”. “Sauveur Candau” Artxibo pribatua; 2 or.



#### 4. EUSKAL-JAPONIAR KIDETASUNA

‘Ni benetako euskalduna naiz, duela bi urte inguru Japoniara etorritako MEP-eko misiolari bat’. Horrela hasten zen *Koe* aldizkari katolikoan ‘Nihon jin to Basuku jin’ —hau da, Japoniarra(k) eta Euskalduna(k)— izenburutzat zuen artikulua. Honako lerro hauek Candauk Japonian idatzitako lehen hitzak dira.<sup>34</sup> Konnotazio jakinak ditu, irakurleak erraz igarriko dizkionak, bai hizkuntzaz eta bai herriaz.

Aurrenekotik hasten bagara, hauxe esan beharra dago: bazela nolabait zehaztugabeko ahaidetasun moduko bat (izpi lainotsuaz nahiz lanbrotsuaz lotua) euskara eta japonieran artean. Candauren hitzak, berriro ere, hartuko dira abiatzekoan, bera baita (segur aski) kidesun linguistiko hau ongien aztertu eta azaldu zuena. Hainbat irratsaio eman zuen bere bizitzako azken hiru urteetan Paulistek sortu berria zuten irrastian (Bunka Hōsō, Tokioko Saint Paul Broadcasting Co.), eta horietako baten emandako hitzaldi bat, ‘Aberriaren irrikaz’, hartuko dugu hemen oinarritzat: euskara eta japonieraren arteko kidesuna eta antzekotasuna azaltzen du, baina ez inolaz ere ondorioztatuz kidesunak islatzen zuela nolabait batasuna (batasuna jatorrian, enbor beretik zetozen heinean). Bere esanetan:<sup>35</sup>

‘Euskal Herriaren jatorria zein den ez dago argi, eta gure paregabeko hizkuntzaren sustraiek misterio izaten jarraitzen dute hizkuntzalarientzat [...] Nolanahi ere, perpausen egituran, eta perpausa amaierako partikulen bitartez zenbat ñabardura, formalitate eta trebantzia transmititu daitezkeen eran, antzekotasun nabarmena erakusten du japonierarekin. Bi hizkuntzetan ohikoak diren esapide idiomatikoak ere badaude; adibidez, zeruan eguzki ederra dagoenean eta aldi berean euria denean, biok esaten dugu azeriak ezkondu egiten direla!’

Konfluentzia hauek, Candaurentzat, nabarmenak ziruditen, zalantzarik gabe. Baina, zer esan nahi zuten hauek? Bata bestearen puntan zeuden bi herrialdeen arteko nolabaiteko lotura zehatza iradokitzen zuten? Candauk galdera hauek behin Kunio Yanagitari, folklorea aditua zen irakasleari, egin zizkion. Honen iritziz, ‘ez du zertan izan. Azken finean, denok gizakiak gara, beraz, ez da harritzekoa antzeko sentimendu eta adierazpenak izatea’. Candauren aburuz, horrek bazuen zentzua. Edo beste hitz batzuetan esanda, erantzun sinplea izan zitekeen nazio ezberdinen azaleko ezaugarri diferentetatik haratago zihonan zerbait bazegoela, ukiezina bezain atzemanezina. Hau da, edozein tokitar joanda ere, giza ezaugarri unibertsal berdinak aurki daitezkeela. Candauren

34. Sauveur CANDAU. “Nihon jin to Basuku jin” [“Japoniarra(k) eta Euskalduna(k)”]. In: *Koe*, 612 zkia., 1927 (Urtarrila); 30-33 or.

35. “Aberriaren irrikaz” testua agertu zen *Seiki* aldizkarian, S. KANDŌ, “Banshū Bōkyō”. In: *Seiki*, 29 zkia., 1951 (Azaroa); 35-39 or.

ikurritza argia zen: 'gure senak existentzia eta esentzia bereizten ditu'.<sup>36</sup>

Candauren hitz zuhur eta neurtuek bazeukaten, egia esan, gehigarri bat, irratsaioan hain agerian azaldu ez zena, baina barruan zeramana. Berarekin harreman zuzena eta gertukoa izan zuen Pierre Lafitte filosofo eta euskaltzaleak, zioen Candau erabat eszeptikoa zela antzekotasun gramatikalei buruz, eta garai bateko misiolarien istorioak 'bufoikeria onesgarriak' besterik ez zirela. Gogoan har dezagun, nolnahi ere, zuria ez denak ez duela nahitaez beltza zertan izan. Lafitteren iritziz, Candauk euskal gramatika sakonki ezagutzen zuen, nahiz eta euskaraz mintzatzen apenas zekien; bien artean egiaztatu omen zituzten gramatika egiturari zegozkion hamar diferentzia, baina baita antzekotasun banaka batzuk ere—adib., substantiboa ez da aldatzen generoan edota bi hizkuntzetako dialekto gehienetan, hitzaren azentua baino, esaldiaren azentua da ohargarriena.<sup>37</sup>

Kontuan eduki behar genuke, haatik, frantsesezkoek gainera, euskarazko gutunak bidaltzen zizkiela Candauk etxekoei edota sendikoei, nahiz eta orain arte bakarra aurkitu dugun (aitari 1917an zuzendutakoa, hain zuzen ere). Ez zaio, halere, bere balioa kendu behar, ze eskutitz horretan onartzen baitu aitak behin aurpegiratu ziona: euskara alde batera utzi izana. 'Benetan lotsa ematen dit', zion Candauk, 'gure hizkuntza nazionala hain txarto maneiatzeak'.<sup>38</sup> Beharbada, bai, baliteke zenbait hitz, hala nola honelako edo halako esapidea, zentzu okerrean edo bikoan erabili izana, baina, oro har, idatzia dotorea eta zuzena dela aitortu behar da, bai estiloz eta bai lexikoz.

Euskara eta japoniera bikoteari buruzko literatura honen hutsarteetan bada bat aski nabarmena. Are gehiago, eszeptikoen multzoan bada misiolarien artean ere non hauta, Jean Baptiste Lissaragueren misiopean bizitakoa baldin bada ere, misiolaritza esparruan mugitzen ari garenez gero. 'La soi-disante parenté des langues basques et japonaises' izeneko artikuluan eztabaida argi eta garbi azaltzen da.<sup>39</sup> Guztiz ustekabekoak dira, hitzez hitz esanda, erlazio hauek Lissaraguentzat, azterketa sakon baten bidez ondorioztatu daitekeen bezala, itxurazko (ustezko batzuentzat) ahaidetasun frogak ere agertzen diren arren. Ahaidetasun honek ez du, gainera, mitoa izatea beste gaitzik, "guk" (misiolariok) gauzatzen lagundu genuen mitoa, hain zuzen ere. Bere iritziz, 'euskaldun bat gehien harritzen duena japoniera ikasten hasten denean ez

---

36. Ibid.

37. Pierre LAFITTEk Xavier Diharceri, [1960ko?] irailaren 20an, [s.l.]. "Sauveur Candau" Belokeko artxiboa

38. Sauveur CANDAUk Felix Candaui, 1917ko irailaren 4ean, Saint-Cyr. "Sauveur Candau" Artxibo pribatua.

39. Lissaragueren artikulua originala *Mélanges Japonais* aldizkarian argitaratu zen 1906an (3, 449-453, Librairie Sansaisha, Tokio). Hiru urte beranduago, Léon Gracyk berrargitaratu zuen *Revista Internacional de Estudios Vascos*-en (4, 41-45).

da hainbeste bi hizkuntzetan aurkitutako zentzu ezberdineko hitz berdinen kopuruak, baizik eta berdin-berdinak diren hitz batzuen presentziak'.<sup>40</sup> Halere, hemen, berriro ere, desengainatu egin behar izan zuten, zeren hitz zerrenda horretatik kanpoan uzten badira japonieran dauden hitz txinatar guztiak, orduan iruditutako baino laburragoa bailitzateke aipatutako zerrenda. Horretaz gain, Lissaraguen argudiatzen du badela eta izan dela, antzekotasunen multzoan, gutxiengo kidetsu bezain ikusgarri eta gehiengo ezberdin bezain ikusgaitz, batez ere bi hizkuntzen egituran eta aditz-konposaketan eta formetan. Zalantzati agertuko liriateke, haatik, baita baikorrenak ere, errotikako diferentzia horien presentzia eta existentziaz balute hizpide.<sup>41</sup>

Ezin da, halere, ukatu beste idatzi batzuetan Candauen iritzia askoz malguago eta ñabarduraz beteago agertzen dela. Berea zen, seguruenez, aurretik japonieraz argitaratutako idatzi baten antz handia baitu (ehuneko 80 arte inguru, edukietan), ustez 1939koa den izkribu anonimoa, "Basque et Japonais" delakoa.<sup>42</sup> Testu honetan, euskara eta japoniera, eztabaida-mahaian zeuden bi hizkuntzak, ez dabilta bakarka: badute bata bestearekiko eragina. Horrek esplikaturiko luke zergatik Candauk —behin bere iloba Aimée Candau gogoratu zuen bezala— maiz onartzen zuen kidesun-izaera duen ondorengo kontu hau: 'euskarak japoniera azkarrago ikasten lagundu izan ziola', hain zuzen ere.<sup>43</sup> Zergati horren arrazoiei buruz hausnartzerakoan, Candauk argudiatzen du euskara izugarri aberatsa dela inflexioetan, hizkietan eta atzizkietan, eta hauek elkarrekin batzen direla euskal aditzetik erradikalera hitz amaigabeetan. Hor legoke euskal aditzaren zailtasuna. Eta horren erakusgarri, honako adibidea ematen du: euskaraz, inflexioak osagarriaren pertsonaren arabera aldatzen dira; inflexio horietako bakoitza konjugazio bezala hartzen bada, 206 arte zenbatuko genuke. Horra hor, beraz, japoniarren aditz soil, adeitsu, lagunarteko eta ohorezkoen dibertsitatea euskaldunei oso erraz eta eskuragarri gertatzearen arrazoa.

---

40. LISSARAGUE, "La soi-disante parenté des langues basques et japonaises"; 42. or.

41. Ez zen denbora gehiegirik pasatu, Lissaraguen lana plazaratu zenetik, lehendabiziko artikulu kritikoa argitaratu arte. Zorrotzeta eta zuzenena, erabilitako metodologia bera kritikatzegatik, pentsalari eta euskaltzale baten eskutik etorri zen, Georges LACOMBE, RIEV-en 1909an "Question de Méthode" izeneko artikuluan. Honen iritzi, Lissarague bezalako lan ausarta bezain oinarri bakoak (eta kidesun hori frogatu nahi duen edozein idazlek ere) honako hiru gauza bete beharko lituzke: 1) euskal linguistikari jakitun izatea; 2) linguistika japoniarrean jantzita egotea; eta 3) saiatu ahalik eta arkaikoen diren formak zehazten, korrespondentzia gramatikalen sistemei dagokienez, alde bietatik. Beste edozein saiakera —Lissaragueri zeharkako aitamena eginez— alde aurrez huts egitera kondenatuta dago. Eztabaida interesgarri hau ahotara ekarri zuen Roslyn M. FRANKKek ia hiru laurden mende beranduago, "La soi-disant parenté del vasco y el japonés" (1975).

42. EAH, "Informe, sin fecha, sobre las similitudes filológicas entre el japonés y el euskera", 1939, [n.d.]. 1927ko artikulua izenburua "Nihon jin to Basuku jin" da.

43. Aimée CANDAU Xavier Diharceri, 1960ko martxoaren 25an, Erroma. "Sauveur Candau" Belokeko artxiboa. Hau ere: Aimée CANDAU. "Sauveur Candau. Pour échapper à la stratégie de l'oubli et exister dans le temps des vivants. Lettre ouverte au Père Sauveur Candau, prêtre des M.E.P., décédé à Tokyo, le 28.09.55", *Ibid.*

Gogoan hartu behar da, nolana ere, Candaurentzat, baten berezitasunean ez ezik, bien arteko antzekotasunean dagoela arrazoia. Perpaus eta esaldien eraikuntzan, esate baterako, antzekotasuna oso deigarria da, bere ustez. Bietan eraikuntza hau erabat librea da, beste hainbat hizkuntzan ez bezala. Maiz euskara jatorrean, japoniera jatorraren gisa berean eraiki ohi da esaldia. Adibidez, frantsesezko ‘L’homme qui est venu hier’, euskaraz ‘atzo etorritako gizona’ eta japonieraz ‘kinō kita hito’ izango lirateke, elkarrentzako modukoak biak. Esaldien eraikuntzaren berdintasunaren azpian dagoena, bere iritziz, izenordain erlatiborik eza da, bai euskarari eta bai japonierari. Labur beharrez, orokorrean, bi ondorio atera daitezke: bata, hizkuntza biak aglutinatzaileak dira; eta bestea, biak libreak dira (gramatikalariek hizkuntzak libre eta ez libreetan banatzen dituzte).

Ez guke, halere, atzenu behar izan zela hainbat misiolari eta idazle hizkuntza bien arteko antzekotasunekin harrirituta geratu zirenak Japonian. Misiolaritza-literatura historian bada bat aski sonatua. Esaten omen da Mugabure Japoniara iritsi zen egunean, hoteleko morroiak pakete bat eman ziola, japonieraz esanez ‘kore bakari da’ (hori bakarrik dago), eta apaiz gazteak, denon harridurarako, erantzun ziola ‘badirudi hizkuntza hori ulertzen dudala’.<sup>44</sup>

Hala eta guztiz ere, bada diferentzia nabarmen bat honezkero topiko bihurtu diren horrelako antzekotasun adibide eta lehen aipatutako Candauren hausnarketaren artean; antzekotasunez gain, Candau haratago joan baitzen. Bere buruari galdetu zionean ‘euskaldunek, zergatik ikasten dute hain erraz japoniera?’, erantzuna egiturazko arrazoietan legoke: ‘japonieran, ama hizkuntzaren jatorrizko forma naturalak aurkitzen dituztelako, edo, beste modu batean esanda, hizkuntza libre baten izankideak’.<sup>45</sup>

Horixe da, hain justu, hemen dihoakigun auzia. Antzekotasun linguistikoak ahituxe ditugu honezkero eta horiekin batera agortu ziren Lissarague garaiko hizkuntzen eztabaida. Kidesunez hitz egiten denean, gaia ez da hainbeste antzekotasun linguistikoa (are gutxiago ahaidetasuna), herrien arteko antzekotasuna baizik —hau da, zenbaterainoko antza zuten, eta duten, Euskal Herriak eta Japoniak. Hasieran aipatutako ‘Aberriaren irrikaz’ irratsaioan, Candauk bi nazioak alderatu zituen hainbat arlo eta esparrutan. Eta ondorioa irmoa bezain biribila izan zen: biak tradizio eta familia-sisteman oinarritutako nazioak dira, tinkoki errotutako eta sakonki zuzturtutako komunitate-izaerakoak, hildakoekiko errespetu berezia adierazten zutenak, esaterako. ‘Bien ohiturak eta moduak konparatzen badira’, Candauk ondorioztatzen du, ‘antzekotasunak amaigabeak dira’.

---

44. Anekdotak hau hainbat tokitan deskribatzen da: adib., ZALDUBY. “Curiosités de synonymie basque-japonais”.

45. EAH, “Informe, sin fecha, sobre las similitudes filológicas entre el japonés y el euskera”, 1939, [n.d]; 4. or.

Guzti honek herrirako duen onura eta hobaria gogorarazi dezake, neke larririk gabe. Candauren arabera, 'herria ados dagoenean eta tradizioaren babesa duenean, kohesionatuta dago partekatutako dibertsioengatik. Familia handiak bezala harmoni estuan bizi da, harrotasun etnikoa eta identitatea indartzen dira eta bizitasun oparoa ugaltzen da. Horrela, ongietorri sentimendu handi eta zabala sortzen da, baita konfiantzazko dei zentzua ere'.<sup>46</sup>

Harrigarria iruditu daiteke zein sakon eta bizi piztu zen sentimendua, barru-barrutik jaiotakoa zalantzarik gabe, Japonian misiolaritza luzearen esperientziagatik. Ez ziren faltatu Japoniarekiko maitasun eta estimu adierazpenak Candauk hainbat miresten zuen Mugaburenak esterako, edota Lissarague, Anciart eta Gracyrenak, kolore eta mota berekoak, eta hauek ez ziren azkenak izango. Izan ere, zenbait misiolari pragmatiko eta ekintzetarako gogotsu izateaz gain, zerbait barrenetik sentitu izanaren komunio prozesua eta kidetasun estua eta hertsia nagusitu ziren euskal misiolarien artean. Honen lekuko ditugu Candauk 'Aberriaren irrikaz' irratsaio amaieran esandako gogoetak, entzuleei bidalitako agur zintzoa, aurreikusitako bihozkada bezala har daitekeena: 'Japonia, nire bigarren aberri moduan maite dudana herrialdea da, Euskal Herria maite dudana bezala'.<sup>47</sup> Zelan edo halan, bere hiletan Sendaiko gotzainak eskaini zizkion hitz ederrak ere bi kultura horien kidetasun eta komunio estuaren ispilu dira: 'Euskal Herrian jaioa, Japoniarra zen buru eta bihotzez'.<sup>48</sup>

Laburbilduz, Candau erabat eszeptikoa zen euskara eta japonieraren arteko ahaiko genetikoarean edozein azalpenarekin, edota enbor bereko hizkuntzak ziren teoriekin, eta haien frogabideekin. Gaur egun edozein hizkuntzalarik onartzen du Candauren iritzia bere jardunean. Hala ere, ahaidetasunarekiko eszeptikoa zen bezala, kidetasunarekiko erabat sinestuna zen. Argi baitzegoen Candaurentzat bi hizkuntza hauen arteko *komunikazio* berezia zegoela, eta betidanik egon zela, eta sekula ez zela erabateko bakardaderik izan, kontrakoa baizik. Hor dago zioenaren lekuko, egiaztatzen zailagoak ez ekartzearren, egunerokotasuneko antzekotasunak, alderdi askotan nabari, mundu-ikuskera eta izaeratik historia eta naturarekiko miresmeneraino. Candauk identifikatu zituen bezala, herri biek maite zuten lana eta bizitza apal eta apatza, baita tradizioa eta independentzia ere. Komunikazio eragina, jakina, ez zen jende guztian eta intentsitate berdinarekin emango, baina misiolaritzak seguruenez bere kutsua utz zezakeen euskal-niponiarraren kidetasunaren sentimenduaren bilakaeran, kultura biek zuten berezitasun pertzepzioan, haien exotismoaren topikotik haratago.

---

46. *Ibid.*

47. CANDAU, "Banshū Bōkyō".

48. [DIHARCE], "Sauveur Candau, Apôtre du Japon et de l'Amitié Universelle". "Sauveur Candau" Artxibo pribatua; 3 or.

## 5. JAPONIAR PENTSAERAREN JABEKUNTZA

Garaiko lekukoaren arabera, Candauk Japoniako kulturara moldatzeko gaitasun aparta erakutsi zuen. Bere metodoa “psikologikoa” bezala definitua izan da. Candauaren interesa Japoniako errealitate kulturalaren izaera psikologikorako ez da, inola ere, bateraezina lehen goian identifikatutako bi herrien arteko kidesunarekin. Alderantziz, ordea, Candauaren moldatze-gaitasun hau bakarrik uler daiteke kidesun kulturalaren sentimenduari erreferentzia eginez, bi mundu-ikuskeren talkari baino —mendebaldekoa eta ekialde urrunekoa, hain justu ere.

Candauk Japonian egindako ibilbidean, Bigarren Mundu Guda isurialdeen banaleroa izan zen. Ordura arte, bere apostolutza, batez ere, intelektuala izan zen: hezi eta eraiki, konferentziak eta kursoak emanez eta prentsan idatziz, horretan aritu zen nagusiki 1925tik 1939ra, Frantziako gobernuak gerrarako mobilizatu zuen arte (bigarren aldiz, aurreko Gerran ere armadako ofiziale izan baitzen). Bere misiolaritza, halere, katolikoen artean soilik izan zen ezaguna, kristaugarai, nobizio eta fededunetara mugatua neurri handi batean.

Bigarren egonaldian, berriz, 1949tik 1955ra, bere eragipenak beste dimentsio bat hartu zuen. Gizarte orokorraren erreferentzietako bat bilakatu zen. Esan izan dute biografoek, garai hartan, Candau izan zela Japoniarrek bere hizkuntzan idazle gisa aitortu zuten atzerritar bakarra.<sup>49</sup> Eta lehendik zekarren zorroak ez zuen zorro berri honen pisua gutxitu, eta jarraitu zuen izaten japoniera bere hitz-jarioaren zerbitzura jartzeko gai, beste atzerritar oso gutxi izan ziren gisan, eta hau bai hitzaldietan bai idatziz.<sup>50</sup> Dena dela, garaiko testuinguruari buruzko beste gai batzuek lagundu dezakete Candauaren jauzi hau hobeto ulertzen.

Gerra ostean Japoniara iritsitako Candau ez zen gerra aurreko Candau bera: zeharo ekintzaile eta lanerako gogatsu etorri arren, gaitzminaren zama eta ospitaletan makina bat operazio jasandako sufrimendu mingorra nagusitzen ziren Candauaren gorputzean. Honen lekuko ziren bere ezkerreko mokorra (obus batek hautsia) eta Japoniako lurra zapaldu bezain pronto esandako hitzak, ‘falta zaizkidan urte urriak bizitzera nator’.<sup>51</sup> Herrialdea ere ez zen, noizbait utzitako herrialdea. Japoniako intelektual askok barren-barrenetik sufritu izan zituzten militarren nagusitasuna eta hauen handitasun eta mendeku egarria. Errekonziliazio eta hausnarketa garaia zen, hondamendiaren zergatiak eta berpizkundearen erronkak aztertze garaia. Gerra aurrean ez bezala,

---

49. IMMOOS. “Ein grosser Apostel der Intellektuellen. Zum Tode von P. Sauveur Candau M.E.P.”; 238 or.

50. MUELLER. *The Catechetical Problem in Japan, 1549-1965*; 82 or.

51. HENRY. “Best-seller au Japon: Sauveur Candau”; 18 or.

pentsamendu eta adierazpen askatasuna zen nagusi, eta hortaz baliatu zen Candau, katoliko eta intelektual gisa.

Berpizkundearen erronkaren tamaina, intelektualei sortzen zizkien kontraesanekiko proportzionala da. Alde batetik, intelektualek antzinako jakinduria eta zuhurtzia miresten zuten; ez ziren faltatu abisu eta zentzuzko aholkuak, intelektualek hainbeste miresten zuten Kakuzō (Tenshin) Okakurarenak esaterako, justu 1914ko gerra aurretik hildakoa —honek esana zuen zuhaitz batek ezin zuela bere hazian bildutako indarra gainditu eta bizitza norberaren baitarako itzulera zela beti. Baina bestalde, intelektualek beraiek ez zuten jakindura hori aprobetxatu, ezta antzinakoen izaera eta izaria ere. Japoniako buruzagi militarista eta inperialistek txundituta, izututa ez bazen, haietan harrotasun nazionalaren deabrua utzi zuten esnatzen. Ez zituzten aintzat hartu antzinako jakintsuen hausnarketak. Baina Candauk berak erreparatu zuen bezala, kontraesanak saihestea sekula ez zen izan intelektual horien bertutea: iraganeko ahotsa entzun izan balu, ‘Japoniak nahiko apaltasuna lortuko zukeen bere arima modernoan falta zen espiritualitatea, batez ere, “kanpoan” bilatzeko. Ez zuen jakin garaipena “barrutik” lortzen eta heriotza “kanpotik” etorri zitzaion’.

Ez zegoen Japonia oraindik bizirik, aski hurbil bazegoen ere, bere arima bizirik baitzegoen, inoiz izan ez zuen bezalako gogoetak harrapatu zuenean Candau. Lehen ere antzeman zuen japoniarren ezaugarri hau, baina ez zuen mamitu eta moldatu 1947. urte arte, *Rythmes du Monde* izeneko aldizkarian, ‘Âme japonaise et bergsonisme’ saioa argitaratu zuen arte.<sup>52</sup> Eta haien kultura eta gizabidea ulertzeko, ez zuen japoniarren intuizioa eta bergsonismoaren arteko lotura baino bide baliotsuagorik aurkitu. Candau jabetu zen, absolutura iristeko intuizio intelektuala zegoen ideiarik ekialdekoek ematen zioten inportantziak; edo, beste era batera, bazegoela mistikoa deitu genezakeen ezagutza mota bat intimoarekin harremanetan jartzen zituena —hau da, errealizazio metafisikoaren ideia japoniarren artean. Horrek Henri Bergson filosofo frantsesaren pentsaera ikertzeko jakin-mina piztu zion: intelektual japoniarrentzat, Bergsonen pentsaera baitzen mendebaldeko pentsamenduarekin bat egiteko pasabidea.

Arima japoniarrak, nabarmenki sentimentala izateaz gain, intuizio indar handia du. Horren lekuko da Candauk irakasle japoniar baten ezpainetan ipini zuen gogoeta, erdi egia erdi alegiazko solas sinbolikoa zela eta: behin ikasle batek galdetu omen zion, nola defini zitekeen justiziaren ideia Japoniako filosofian. Eta irakasleak erantzun zion, ‘Japonian ez dago ideiarik, sentimenduak baino ez dira’.<sup>53</sup> Erantzun hori, noski, txantxa bat besterik ez zen Candauren ustez,

---

52. CANDAU. “Âme japonaise et bergsonisme”.

53. Ibid.; 54 or.

baina txantxa guztiek dute bere barruan ernetzen den hazia. Honen iritziz, arima japoniarra pentsamendu diskurtsiboaren ertz askoko xehetasunen beldur da, haren arrazonamendua Guatamaren logika indiarraren eraginpean baita, agian primitiboagoa, baina “gure logika” baino gizatiarragoa ere, indukzio-dedukzio nahasketa horretan adibideak, parabolak, alegoriak, etab., duten eginkizun garrantzitsua dela eta. Ondorioz, logika hau, mendebaldeko logika aristotelikoa baino askoz ulergarriagoa eta gertuagokoa izango litzateke. Candauk sarritan esan zuen japoniarrek ez zutela mendebaldeko logikan sinisten, beraien intuizioan baizik.

Aski ezaguna da ere japoniarren arrazoibidea ez dagoela, hainbeste, frogatzera zuzenduta, ilustratzea eta elkarrizketa piztera baino. Eta hizlariak ez ezik, baduela solaskideak ere erantzukizuna honetan, mendebaldean horrelakorik gertatzen ez bada ere. Argudiatzen duenaren gainean susmoaren zama jartzen baita: bere berbalagun inozoa konbentzitzeko, bere arrazoitzeko indar bidegabez baliatzearen susmagarria bilakatzen baita. Hau dela eta, darabilgun hariari zuzen-zuzenean dagokion Candauaren gogoeta bat bitartekatu behar da, bere azkeneko urteko idatzietatik ateratakoa. Esan izan da, nahi baino sarriago, japoniarrei uste oso eta sendoa falta zaiela ezbaietan. Candauaren ustez, ordea, segurtagen hau, mendebaldeko pentsaeran ez bezala, non izaera indibidualista duen, Japonian taldean zentratutakoa eta inspiratutakoa da. Guzti horrek frogatuko luke, Japonian argudiatzearen xedea ez dela egia eskuratzea, baizik eta komunikatzea. Edota, itzuli-mitzulika ez ibiltzearen, helburua ez da horrenbeste ulertzea, beste batzuek ulertaraztea baizik.<sup>54</sup> Japoniarren eran ulertzeak, Candauaren ustez, berarekin dakar besteok ulertaraztea: “comprendre” baino, “com-prendre” da —hots, “prendre avec soi”, hau da, norberarekin eraman, taldearen batasunak dakarren guztia (ikasmena, ikuspena, ekoizpena).<sup>55</sup>

Askotan aipatu da, eta oso gogoan dute Japonian, budismoak, konfuzianismoak eta xintoismoak izan duten eragin zuzena edo zeharkakoa kristautasunean. Ezin uka liteke, baina esan ere egin behar litzateke, mendebaldean ezezagunagoa denez, Japoniako bizitzan inguru berean, bakean eta errespetuz, elkar bizi den eklektizismo erlijioso sarri aurki daitekeela. Izan ere, gehiengoak, esate batera, ez zuen bereizten, ikuspuntu doktrinal batetik, kristautasun eta budismoaren artean dagoen diferentzia. Pentsamolde malgu hau, Candauaren gogoan zegoen axioma batera bil daiteke: besteren tradizioei buruzko edozein interpretaziok, zenik eztabaidagarrienak ere, elkarbizitza erlijiosoaren alde egin behar zuen beti. Honek ezaguna den Yasukuni santutegiko gertaeraren aurrean Candauk izan zuen jarrera azaltzeko balio du. Gogora dezagun 1932an Sophia Unibertsitateko bi ikaslek santutegia bisitatzeari

---

54. CANDAU. “L’apostolat dans les «millieux intellectuels» japonais”; 250 or.

55. Ibid.; 178 or. Ikusi ere: NEBRED. “Japanese Mind and Christian Message”; 154 or.



uko egin ziotela, hango beharrezko erreberentziak beraien uste erlijiosoaren aurka zihoazelako.<sup>56</sup> Candaurentzat, erreberentzi hauek —eta arbasoen kultua orokorrean— zerbait erabat naturala zen. Are gehiago, Erromako kurian baino, misiolarien beraien esku egon beharko luke arbasoen kultua eta kultu paganoaren arteko bereizketa egitea. Arriskuak alde bietan zeuden: izan ere, Enperadore eta militarren sistema boterearen aurrean belaunikatzea laidogarria bazen ere, ez zen askoz txarragoa izango, misiolariarentzat, elizako gehiegizko zentralizazio arriskua, bai misiolarien askatasunerako, bai tokiko komunitate katolikorako.

Egokitzapen kulturala eta kultur ulermena misiolaritzak berez duen arazoa da. Honen aurrean, misiolaritzak edo, hobeki esan, horretan aritzen diren misiolariak, bi posizio hartu izan zuten. Batetik, inolako egokitzapen arazorik ez dagoela eusten zutenak. Bestetik, Japoniako kulturaren hainbat alderdi exotiko eta bitxiaren aurrean gehiegizko kezka erakusten zutenak. Biok elkarri hertsiki lotuak daude —muturreko posizioak adierazten baitituzte— Japoniako gerra arteko eta osteko errealityteren irakurketa okerrak baitira, edo aldebatekoak bederen. Biek ulertzen zuten, gainera, kristautasuna era berean, printzipio abstraktuen corpus baten gisa, bere forma eta adierazpenetan eraginik gabe mantendu zena beste habitat kulturalen artean.<sup>57</sup>

Testuinguru honetan, bi ikuspuntu hedatu bezain herrenen artean kokatu beharra dago Candauren metodo psikologikoa, ondo ulertu ahal izateko. Nahiz eta gai hauek modu pribatuan sarritan jorratu zituen, 1954-1955 neguan baino ez zituen azaldu lehenengoz publikoki eta xehetasunez. Hitzaldi hauek ‘L’apostatolat dans les « milieux intellectuels » japonais’ izeneko artikulua batean argitaratu ziren hortik gutxira, *Nouveaux Mélanges Japonais* eta *Missionary Bulletin* aldizkarietan. Ingeleseko bertsioa ere argitaratu zen 1964an, baina honek idatziari ez zion eman merezi zuena, ez idazkiaren barnatasunari ezta edertasunari zegokionez ere.<sup>58</sup>

Candauk, mendebalde eta Japoniako psikologiak alderatu zituen.<sup>59</sup> Mendebaldekoa, bloke angeluarrez osaturiko psikologia bertikala da. Hiru bloke karratuz osaturiko piramidea da: zabalena eta astunena pertzepzioa da,

---

56. Lau urte beranduago, Batikanoko Propaganda Fidek bisitak onetsi zituen, abertzaletasun adierazpen gisa, eta *Pluries Instanterque* izeneko argibideak plazaratu zituen. Gertakizun honi buruz: GEPPERT, *The Early Years of Sophia University*; 83-94 or.; BREEN, “Popes, Bishops and War Criminals: reflections on Catholics and Yasukuni in post-war Japan”.

57. Bi pentsamendu-kategoria hauen bereizketarako, ROGGENDORF, “On the Missionary Method of Father Candau: Thoughts on Cultural Adaptation”; 181-182 or.



58. CANDAU, “L’apostatolat dans les « milieux intellectuels » japonais”; CANDAU, “Approche spirituelle du Japon”; CANDAU, “Apostolate among the Japanese Intellectuals”.

59. Ondoren datorrena hemen aurki daiteke : CANDAU, “L’apostatolat dans les « milieux intellectuels » japonais”; 181-182 eta 248-248 or. Ikusi ere: ROGGENDORF, “On the Missionary Method of Father Candau”; 182-185; MUELLER. *The Catechetical Problem in Japan, 1549-1965*; 82-83 or.

mendebaldeko pentsamoldearen oinarrian dagoena; horren gainean, apalagoa eta txikiagoa, inteligentzia; eta, gailurrean, borondatea dago, azpikoa baino txikiagoa (normalean nahi duguna baino gehiago baitakigu). Forma karratuek mendebaldeko kontzepzioen izaera angeluarra islatzen dute: sentsibilitatea, pertzepzio fakultatea; adimena, asimilazio fakultatea; borondatea, exekuzio fakultatea. Mendebaldeko filosofia sistema guztiak psikologia bertikal honen bidez iragazten dira: pentsamendua, zentzumen pertzepzioarekin hasten da; ondoren, hau dena ideia eta proposamenetan destilatua izaten da; eta, bukatzeko, kontzeptu intelektual hauetan borondatearen ekintza oinarritzen da. Mendebaldekoek, beraz, “à la verticale” pentsatzen dute.

Japoniarren psikologia, berriz, bertikala baino, horizontala da. Borondatearen ekintzak ez dira hain angeluarrak, borobilagoak baizik, eta lehen laukiez adierazten zena orain zirkuluetan irudikatuko da. Hiru zirkuluz osaturikoa da: zentroan “jō” (sentsibilitatea) dago, handiena, ‘japoniarren bizitza psikologikoaren ardatza’; beste biak, “chi” (inteligentzia) eta “i” (borondatea), txikiagoak dira eta “jō”-rekin bakarrik komunikatzen dira. “jō”-ren zentraltasun honek ematen dio pentsaera japoniarrari intuizioaren izate eta izaera. “jō”-k askoz ere garrantzi handiagoa du ekialdeko eboluzio psikologikoan, mendebaldekoarekin alderatuta. Japoniarrek, beraz, ‘à l’horizontale’ pentsatzen zuten.

1. irudia. Mendebaldeko pentsaeraren bloke-sistema (ezkerrean) eta japoniarreko pentsaeraren zirkulu-sistema (eskuinean), Candauren metodo psikologikoaren arabera



**Iturria:** CANDAU, Sauveur. “L’apostolat dans les « milieux intellectuels » japonais”. In: *The Mission Bulletin*, 1956; ezk. 182 or. eta esk. 248 or.

Honek, bidenabar, *a contrario* frogatuko luke, mendebaldeko hainbat pentsalarien argudioak gorabehera, Candauren tesiaren funtsa, Bergsonen intuizionismo filosofiak, alegia, balio duela japoniarren pentsaeraren logika

ulertzeko, gida espiritual gisa besterik ez bada ere —Candauren hitzetan, Japoniarrek Bergson bihotzarekin irakurtzen zuten, buruarekin baino.<sup>60</sup> Bergsonek *Evolution créatrice* saiakeran definitutako intuizioaren kontzeptu bera, definizio gisa eztabaidatua eta eztabaidagarria mendebaldeko pentsalari askorentzat, bi ustezko bereizitako kategoriak (“arrazoia” eta “sentimendua”) nahasten zuenez, bazuen zentzua japoniarren psikologia eta mundu-ikuskeran. Zentzua zuen bezala beste influentzia kultural batek, Indiarren pentsaerak, hain zuzen ere, non proposizioa, Japoniarren eran bezala, *ilustratua* baita, *frogatua* baino. Usteak uste, bi kontu oso ezberdin ziren defendatzea arrazoinamenduaren xedea ez zela egia ezartzea baizik eta komunikazioari bide ematea eta, bestetik, dedukzio-indukzioan oinarrituriko mendebaldeko silogismo bidezko arrazoibidea.

Gero, japoniarren psikologian eragin zuen beste faktore bat ere badago, mendebaldeko zientziarekiko hartu-emanak, hain zuzen. Goian aipatutako saiakeretan, Candauk zientziak mendebaldeko eta Japoniako intelektualen arteko diferentziak murriztu beharrean, sarritan sakondu izan zituela defendatu zuen. Horren arrazoia ezagutza zientifikoaren asimilazio prozesuan legoke, alegia, japoniarrek ezagutza horren sakontasuna baino, bere estalki entziklopedikoa eta azalekoa, bereganatzen zutela. Hemen, salbuespenak eta kasu partikularrak baztertuz, oinarriko emanak egiazkoak ote diren jakin beharra dago. Eta Candauren erantzun bakarra baiezkua izan zen: ‘Badirudi Japoniako inteligentzia definitu daitekeela ez bere produkzio intelektualaren arabera, baizik eta bere informazio intelektualaren graduaren arabera’. Mendebaldean ez bezala, Japonian ‘intelektuala ez da berez eta berarentzat pentsatzen duena, baizik eta bere irakurketa eremuak mendebaldeko pentsamenduaren historiarekin eta hango intelektual jendearekin harremanetan jartzen dituen’.<sup>61</sup>

Honen harira, Candauren ustez froga daiteke pentsalariak sakontasuna eta abstrakzio-gaitasuna entziklopedismoaren eta informazioaren mesedetan galdu ahala murriztuz doala beronen pentsamendu sistematikorako gaitasuna eta sintesirako ahalmena. Gaitz hau jasaten dutenen artean, Candauk zientzialari espezializatuak aipatzen zituen besteak beste (literato eta filosofoen artean ere ereinda zegoen hazia, hautemanezinagoa bazen ere). Hainbesteko pazientziaz, xehetasunez eta konstantziaz landutako espezializaziotik aparte, zientzialariak zipli-zapla ibiltzen daki bakarrik; ikusmira laburreko eta nahiko azaleko eta koherentzia gutxikoa den ezagutza horri, eufemistikoki, ‘ippan kyōyō (kultura orokorra) deitzen zaio. Bazuten, beraz, ezagutza, baina zuten ezagutza —analitikoa zena— mendebaldekoen kontrakoa zen, sintetikoa

---

60. Bergsonen eraginaren adibide bezala, behin Japoniar jakintsu batek Candauren esan ziona aipatu beharra dago: ‘ez da nire asmoa Bergsonen zer esan nahi zuena ulertzea. Bera irakurtzerakoan, bere filosofiak nire ariman sortutako oihartzunak entzuten ditut’. CANDAU, “Âme japonaise et bergsonisme”; 55 or.

61. CANDAU, “L’apostolat dans les « milieux intellectuels » japonais”; 179 or.

baitzen hauena.<sup>62</sup>

Hortik dator, neurri handi batean, Candauk aipatu ohi zuen Japoniarren errezeloa kristautasunarekiko, nolabaiteko alderdi sistematikoa burura etortzen baitzitzaien (zientziarekin gertatzen zen bezala), eta, hala ere, eskuragarriagoa egiten zitzaien haren alderdi metodikoa. Kristautasuna erlijio dogmatikotzat hartzen zuten, aldeztatik pentsatutako sistema bat inposatzeko jarrera harraraziz. Beraz, apriorizkoa zen, edozein esperientzi eta kritika analitikoaren aldeztatikakoa. Kristautasunak sistema bat adierazten zuen, metodo bat baino. Kontu honek, katekista lanari banaezina zaiona (ez gara katixima doktrinarekin ari, zabalkundearekin baizik), makina bat intelektual japoniar eraman zuen honako hau pentsatzera, alegia, katolikoek gauza guztientzat zutela erantzuna, berdin munduaren jatorriari ala amaierari buruz izan. Halere, kristautasunera hurbiltzeko, metodo bat onartuko lukete, metodo bat bide bat zelako. Ez zen argia metodoa; bideak, ordea, katolikoek iritsi nahi zituzten helburuetarako egokitu behar zitzaizkien japoniarrei.<sup>63</sup>

Ez da oraindik, mendebaldean behintzat, neurtzen hasteko behar bezain ezaguna Candauen metodoa, hainbeste gauzatan bizirik dirauen legatu oparoa. Hortaz, aipamen epitaifiko bati lotuko gataizkio, metodo hura, gehiegikeria gabe, erabat originaltzat definitzeko, zaila delarik Japoniako historian zehar antzekoa aurkitzea, inoiz metodo originalik eman bada. Bere azken artikuluetan zetorren gaia, zientzia eta erlijioaren arteko kontrasteak zigokion hertsiki: katiximaren erabilera diskriminatuak, sistema gisa irakatsiaz, galgarri gertatu beharko zuen Japoniako ebanjelizaziorako. Askotan aipatzen zen, eta ez da horretan agortu gaia, Japoniako gobernu militarrek izan zuen paper oztopatzailea. Ezin uka liteke, baina esan beharra dago, Candauk aurreratu zuen bezala, Japonian katixima zabaltzeko era ere ez zela lagungarri izan. 'Katixima ebanjelio sistematizatua da', zion Candauk, 'kristautasuna irakasteko guztiz proposa dena, sinesten dutenentzat edo sinetsi nahi dutenentzat' (hau da, fededunentzat); fedebakoentzat, ordea, ebanjelioa gertuagokoa da: ez da sistema, baizik eta bide bat. Diferentzia, garrantzitsua bederen, oharkabean pasatu zen Candauk azaldu zuen arte: 'Metodoa adimena da fedearen bila; sistema fedea da adimenaren bila'.<sup>64</sup>

---

62. Ibid.; 179 or.

63. CANDAU, "Approche spirituelle du Japon"; 75-76 or.

64. CANDAU, "L'apostolat dans les « milieux intellectuels » japonais"; 179 or.

## 6. ONDORIOAK

Orain arte esana ez da Candauen pentsaeraren laburpena izan, ez baitzen hori lan honen helburua; pentsamendu-corpus original eta zabal eta, gure artean, nahiko ezezagun baten lekuko izan nahi du. Corpus honek ahanzmentuaren eta ezjakintasunaren aurrean besoak tolesturik ez geratu nahi izateaz gain, erlikia agurgarritzat tratatzerik ere ez du onartzen, zera, handik pixka batera inork oroituko ez duen erlikia nipondar exotiko eta bitxi bezala.

Kultura batean hartutako mezua, beste kultura bateko baloreetan murgildutako herri batera aditzera ematea arazo delikatua bezain konplexua da misiolarietzat. Tradizionalki, prozesu hau nazio-estatu metropoliko narratiben bidez azaldu izan da, non jokoan zeuden aktoreek eta faktoreek elkarri eragin zioten bi eremu motetan, nazional-estatalean eta globalean. Narratiba hauek diotenez, erlazio kulturalaren problema pultsu historiko bat izango litzake, hain zuzen ere, mendebaldeko nazio-estatuak laguntzarekin, ebanjelioa doktrina zabaldu eta inposatu nahi duen elizako botere zentralizatzailearen eta sarritan Vatikanoko irizpide eta baloreekin bat ez datozen kultur garapen eta antolaketa prozesuak burutzen dituzten bertako gizarte hartzaileen artean. Eredu hau, halere, ez da egokia kasu honetarako. Japoniako euskal misiolaritzaren historiak egiaztatzen duenez, erlazio kultural honek nazio-estatu narratiben bide estuak gairatzen duen interesa du. Narratiba nazional hauen ordez, azalpena bilatu dugu hiru arloetan (tokikoa, nazionala eta globalean) bistaraturako indar topaketan, doktrina ebanjelikoaren transmisioa moldatu zuten kulturarteko eta eskualdearteko kideatasunei arreta berezia jarriaz. Teoriaz, edozein gauza transmiti edo molda daiteke kultura batetik bestera: transmisioak eta moldaerak ordea errazagoak dira batzuetan eta nekezagoak besteetan. Dena delakoan, eta hauxe da hemen azpimarratzekoa, kideatasunak lekua utzi zion moldaerari —Candauen kasuan, behinik behin—; baina moldaera hau, linguistikoa eta erlijiosoa hasiera batean, gero eta zabaltzenago genuen Japoniako gizarteko beste arloetan.

Guzti honen atzean, euskal-japoniar kideatasunari gehiegizko garrantzia ematean nolabaiteko arriskua dago, Candauen metodologia psikologikoa hortik soilik eratorria bailitzan. Ukaezina dirudi kideatasun horren eraginak, batez ere japoniera ikasteko eta kultura aditzeko orduan. Ezin da, ordea, bere metodologia originala murriztu eragin-faktore bakar batera. Candauen egokitzapen arrakastak, lagun eta aitzindari mordoxka izan zituen aurretik jasotako hezkuntza eskolastiko eta filosofia neo-tomista, oratoria eta hizkuntzetarako izan zuen talentua, sarritan erakutsitako adimen eta pertzepzioaren azkartasuna, eta bere izaera moldakor eta errukiorra —hauei gabe, ez zen izango izan zena.

Candauk sarritan esaten zuen: ‘Japonia ulertzeko, asko entzuten jakin behar duzu eta ondorioz isilik egoten’.<sup>65</sup> Zaila da hain hitz gutxitan laburtzea Xabierko Frantziskoren mezua eta aldi berean misiolaritzaren benetako esentzia eta koherentzia.

## ESKER ONAK

Gure irudiko, ikerlan honen alderdiren bat Candauren gogoko izatekotan, zalantzarik gabe, euskaldun eta japoniarren arteko harremanak eta zubiak eraikitzen ahalegintzea izango litzateke: Sauveur Candauren senitartekoei biziki eskertu nahi diegu—Jeannie Candau eta honen alaba Anne batez ere—erakutsi duten eskuzabaltasuna argitaragabe dauden eskutitzak eta idatziak erakustean. Horiez gain, lankide anitz laguntza handia eskaini digute era askotara, bereziki Beñat Amestoy apaiza, Marc Doucet (Belokeko seminariokoa), Koldo San Sebastian historialaria, eta Jerardo Elortza eta Ibai Iztueta (proba zuzenketetan). Azkenik, gure esker onak helarazi nahi dizkiegu Tokioko Atzerriko Ikasketen Unibertsitateko lankideei eta lagunei, batez ere Akiko Tonooka liburuzainari eta Euna Kim lankideari, egin ziguten abegi onagatik.

---

65. CANDAU, “L’apostolat dans les « milieux intellectuels » japonais”; 325 or.

## 7. INFORMAZIO ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

### 7.1. Artxiboak

- Belok Abadiako Artxiboa
- Donibane Garaziko 'Sauveur Candau' Artxibo Pribatua
- Euskadiko Artxibo Historikoa

### 7.2. Bibliografia

ARAKI, Shinichiro. *Zwei Seiten der Welt. Essays von Vater Sauveur Candau*. Nagasaki: Japan Institut für Vergleichende Kulturforschung, Junshin Katholische Univ., 2011.

BEILLEVARIE, Patrick. 'La participation de la Société des Missions Etrangères de Paris à l'ouverture intellectuelle du Japon dans les derniers temps du régime Shōgunai'. In: MARIN, Catherine (ed.) *La société des missions étrangères de Paris : 350 ans à la rencontre de l'Asie, 1658-2008*. Paris: Karthala, 2010; 197-223 or.

BELICH, James, DARWIN, John, FRENZ, Margret, eta WICKHAM, Chris, (eds.). *The Prospect of Global History*. Oxford: Oxford University Press, 2016.

BREEN, John. "Popes, Bishops and War Criminals: Reflections on Catholics and Yasukuni in Post-War Japan". In: *The Asia-Pacific Journal*, 8 zkia., 2010; 1-15 or.

CAMUS ETCHECOPAR, Argitxu. *La Maison Basque de Paris. Pariseko Eskual Etxea (1952-2002)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2003.

CANDAU, Sauveur. "Nihon jin to Basuku jin' [Japoniarra(k) eta Euskalduna(k)]". In: *Koe*, 612 zkia., 1927; 30-33 or.

CANDAU, Sauveur. "Âme japonaise et bergsonisme". In: *Rythmes du Monde*, 2 zkia., 1947; 51-64 or.

CANDAU, Sauveur. "Banshū Bōkyō". In: *Seiki*, 29 zkia., 1951 (Azaroa); 35-39 or.

CANDAU, Sauveur. "Approche spirituelle du Japon". In: *Cahiers des Auxiliaires*, 15 zkia., 1956 ; 75-82 or.

CANDAU, Sauveur. "L'apostolat dans les « milieux intellectuels » japonais". In: *Nouveaux Mélanges*, 9 zkia., 1955. (In: *The Mission Bulletin*, 11 zkia., 1955;

178-182, 248-252, 320-325 or.).

CANDAU, Sauveur. "Apostolate among the Japanese Intellectuals". In: *Japan Missionary Bulletin*, 18 zkia., 1964; 245-252, 341-344 or. Itzultzailea, Joseph Goedertier C.S.C.M.

CNOCKAERT, André, BERTRAND, Dominique, FRANCAERT, Roland. *Ignace de Loyola, François Xavier, Pierre Favre*. Namur, Fidélité, 2005.

CONRAD, Sebastian. *What Is Global History?*. Princeton: Princeton University Press, 2016.

DELBOS, Fernand. "Le Père Sauveur Candau". In: *Bulletin de la Société des Missions Étrangères de Paris* (Hong Kong), 93 zkia., 1956; 593-610 or.

DIHARCE, Xavier. *Sauveur Candau, apôtre du Japon et de l'amitié universelle (1897-1955)*. Urt, Basses-Pyrénées: Éditions Ezkila, 1966.

DOAK, Kevin M. "Kandō Shinpu no nihon bunka e no kōken" ("Japoniako kulturari anaia Candauk egindako ekarpena"). In: Nanyan GUO ed., *Nihon Senkyō to Nihongo ni yoru Chojutsu (Missionaries to Japan and their Japanese Language Writings)*. Tokyo: Akashi Shoten, 2017; 227-240 or.

ETCHEBERRY, Jean Baptiste. "Aita Jean Chabagno (1881-1975)". In: *Gure Herria*, 45 zkia., 1975; 173-182 or.

ETCHEGARAY, Roger. "L'effort missionnaire des Basques à travers les siècles". In: *VIIIème Congrès d'Etudes Basques* (8. 1954. Baiona, Uztaritz). Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2003; 323-336 or.

FABAS, Philippe. "Un missionnaire basque Mgr Pierre Mugabure". In: *Bulletin du Musée Basque, Bayonne*, 167 zkia., 2006; 3-16 or.

FRANK, Roslyn M. "« La soi-disant parenté » del vasco y el japonés". In: *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, 26 zkia., 1975 ; 347-355 or.

GEPPERT, Theodor. *The Early Years of Sophia University*. Tokyo: Verf, 1993.

GUO, Nanyan. *Making Xavier's Dream Real. Vernacular Writings of Catholic Missionaries in Modern Japan*. Tokyo: Japan Publishing Industry Foundation for Culture, 2020.

HAGIO, Sho. "Beyond Reverse Orientalism. Acceptance of the Notion of "Basque" in Japan". In: *Guregandik, Revista del centro de estudios Arturo Campión*, 9 zkia, 2014; 63-81 or.



HECKEN, Joseph L. Van. *Un Siècle de Vie Catholique au Japon 1859-1959*. Tokyo: Committee of the Apostolate, 1960.

HENRY, A.M. "Trois prêtres en mission". In: *Informations Catholiques Internationales*, 106 zkia., 1959; 17-20 or.

IMMOOS, Thomas. "Ein grosser Apostel der Intellektuellen. Zum Tode von P. Sauveur Candau M.E.P.". In: *Orientierung*, 19 zkia., 1955. Zurich: Katholische Blätter für weltanschauliche Information, 1955; 237-239 or.

KAJITA, Junko. *Los pueblos y las casas en "caseríos" del País Vasco y en "ie" en Japón: estudio comparativo y analítico de "Yago" o nombre de casa*. Hirakata: Kansai Gaidai University, 1997.

LACOMBE, George. "Question de Méthode: À propos du Basque et du Japonais". In: *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 3 zkia., 1909; 121-122 or.

LISSARAGUE, Jean Baptiste. "La soi-disante parenté des langues basques et japonaises". In: *Mélanges Japonais*, 3 zkia., 1906; 449-453 or. ([Léon GRACY] *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 3 zkia., 1909; 41-45 or.)

MARITAIN, Jacques. *Distinguer pour unir ou les degrés du savoir*. Paris: Desclée de Brouwer, 1932.

MARTIN, J.M. "Peter Francis Mugabure: Second Archbishop of Tokyo (1850-1910)". In: *The Missionary Bulletin*, 6 zkia., 1953; 58-60 or.

MIYAMOTO, Toshiyuki. "Nihon to sekai-teki yūjō no shito: S. Kandō shinpu shōden" ["The Apostle of Japan and Worldwide Friendship: A Short Biography of Father S. Candau"]. In: S. Kandō Ikkan Senshū [*S. Candau One Volume Selection*]. Tokyo: Shunjūsha, 1968; 271-281 or.

MUELLER, George A. *The Catechetical Problem in Japan, 1549-1965*. Tokyo: Oriens Institute for Religious Research, 1967.

NEBREDÁ, Alfonso M. "Japanese Mind and Christian Message". In: *Studia Missionalia*, 12 zkia., 1962; 129-156 or.

PEREZ GARCIA, Manuel. "Introduction: Current Challenges of Global History in East Asian Historiographies". In: Manuel PEREZ GARCIA, Lucio DE SOUSA eds. *Global History and New Polycentric Approaches Europe, Asia and the Americas in a World Network System*. Singapore: Palgrave MacMillan, 2018, 1-20 or.

POLAK, Christian. *Soie et lumières: l'âge d'or des échanges franco-japonais (des origines aux années 1950) = Kinu to hikari : shirarezaru Nichifutsu kôryû 100nen no rekishi (Edo jidai-1950 nendai)*: Tokyo : Hachette Fujingaho, 2002.

ROGGENDORF, Joseph. "On the Missionary Method of Father Candau: Thoughts on Cultural Adaptation". In: *Japan Missionary Bulletin*, 10 zkia., 1956; 180-185 or.

SATRUSTEGUI, Jose Mari. *Japongo eta Euskal Herriko ohitura zaharrak: hitzaldia. Itzulpena: Suzuko A. Tamura*. Tokyo: [Institute of Language Teaching, Waseda University], 1988.

SIBRE, Olivier. *Le Saint-Siège et l'Extrême-Orient (Chine, Corée, Japon) de Léon XIII à Pie XII (1880-1952)*. Rome: Collection de l'École Française de Rome, 2012.

SIERRA, Carlos H. "Euskal Herria y Extremo Oriente. Interacciones vasco-japonesas en la modernidad". In: *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 57 zkia., 2012; 128-173 or.

TANAKA, Kotaro. "La mort de ce prêtre français a fait pleurer tout le Japon". In: *La Cité: Revue de la Cité Universitaire de Paris*, apirilaren 1957; 59-63, 103 or.

TODD, Emmanuel. *La Diversité du monde: Famille et modernité*. Paris: Editions du Seuil, 1999.

YAMANASHI, Atsushi. "Sōvūru Kandō shinpu to kindai Nihon no chishiki jin" ["Sauveur Candau apaiza eta intelektualak Japonia modernoan"]. In: Katorikku Kenkyū. *Catholic Studies*, 81 zkia., 2012; Tokio: Theological Society of Sophia University, 101-140 or.

YOSHITOMI, Masaomi. *Le Japon et sa civilisation: Essai sur l'origine commune des Basques et des japonais. Conférence faite à l'Université de Louvain*. Bruxelles: Société Belgo-Japonaise, 1937.

ZALDUBY. "Curiosités de synonymie basque-japonais". In: *Semaine de Bayonne*, 1906ko irailaren 19a.

